



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**  
**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

**PUBLIZITATE ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO GRADUA**

IKASTURTEA 2017-2018

**Mendebaldeko emakume arabiar-musulmanen  
askatasunaren aitzakia Afganistango eta Irakeko  
inbasioetan**

Egilea: Nagore Lana Ocasar

Zuzendaria: Karlos Pérez de Armiño

Data, 2018ko irailaren 4a

Fecha, 4 de septiembre de 2018

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

## AURKIBIDEA

---

1. Sarrera .....	3
1.1. Helburuak.....	4
1.2. Hipotesiak .....	4
1.3. Metodologia.....	5
2. Diskurtsoen eraikuntzari buruzko oinarri teorikoak: Ekialde Hurbil eta Ertainari buruzko Mendebaldeko ikuskeraren kasua .....	6
2.1. Teoria postkolonialak.....	7
2.2. Kolonialismoan sortutako diskurtsoak .....	11
2.2.1. Feminismo hegemoniko eta homogeneoaren diskurtsoa .....	13
2.3. Propaganda, erretorika politikoa eta diskurtso soziala .....	14
2.4. Nazio Batuen diskurtsoa .....	17
3. Emakume arabiar-musulmanen egoera XX-XXI. mendeetan.....	19
3.1. Afganistango eta Irakeko emakumeen egoera inbasioak baino lehenago .....	21
3.1.1. Afganistango emakumeen egoera inbasioa baino lehenago.....	21
3.1.2. Irakeko emakumeen egoera inbasioa baino lehenago.....	22
4. Irakeko eta Afganistango emakumeen egoera eta hauei buruzko diskurtsoak Estatu Batuetako inbasioetan.....	24
4.1. Emakume afganiarrei buruzko diskurtsoak Afganistango inbasioan (2001) .....	26
4.1.1. Burka Afganistango gerraren sinboloa.....	27
4.1.2. Feminismo hegemonikoa Afganistango inbasioan .....	28
4.1.3. Hedabideen eragina Afganistango inbasioan .....	29
4.1.4. Nazio Batuko 1325 ebazpenaren ezarpena Afganistango inbasioan.....	31
4.2. Emakume irakiarrei buruzko diskurtsoak Irakeko inbasioan (2003) .....	33
4.2.1. Feminismo hegemonikoa Irakeko inbasioan .....	33
4.2.2. Hedabideen eragina Irakeko inbasioan.....	34
4.2.3. Nazio Batuko 1325 ebazpenaren ezarpena Irakeko inbasioan.....	36
5. Ondorioak .....	39
6. Bibliografia.....	41
7. Eranskinak.....	53
7.1. Buruko zapia (edo arabieraz Hijab) Mendebaldeko diskurtsoen sinboloa.....	53

## 1. SARRERA

---

Duela hamabost urte Irakeko inbasioa hasi zen. Hamazazpi urte Afganistangoa. Urruneko gertakariak direla dirudi. Baina, oraindik esku-hartze militar horien ondorioak gure gizartean igarritzen dira. Mendebaldeak<sup>1</sup> bi inbasio horietan parte hartzeko justifikazioak eta aitzakiak eraiki zituen. Ekialde Hurbila, Ertaina<sup>2</sup> eta Islama terrorismoarekin erlazionatzeaz aparte, Mendebaldeak emakume musulmanei askatasuna eta salbazioa ekarriko zien, Islama, buruko zapia eta gizon afganiarren eta irakiarren mendekotasunetik eta zapalkuntzatik askatzeko. Eta, diskurtso horiek pixkanaka-pixkanaka Mendebaldeko gizartearen pentsamenduetan eragina izan dute, gizarte europarrak eta estatubatuarrak emakume arabiar-musulmanak esparru pribatuan<sup>3</sup> soilik aritzen direnak, isilak, mantsoak eta ahots gabekoak direla uste baitute.

Hala ere, errefuxiatu kanpamentu batera joan eta Irak edota Afganistango emakume zahar eta gazteekin elkarrekin bizitzerakoan eta haiekin solas egiterakoan<sup>4</sup>, konturatzen zara emakume hauek proiektatzen duten irudia (emakume ausartak, askeak, haien bizitzaren jabeak eta alaiak) ez datorrela bat zuk duzun irudiarekin. Hori dela eta, galderak planteatzen hasten zara, besteak beste, zergatik emakume hauei buruzko kontrako bi irudi dituzun eta nola, nondik eta zergatik eraiki duzun kaiolan harrapatuta daudenaren irudia.

Horregatik, ikerketa lan hau saiatzen da Mendebaldeak irakiar eta afganiar emakume arabiar-musulmanei buruz sortu dituen diskurtsoen zergatia eta arrazoiak azaltzea, 2001eko Dorre Bikien atentatua inflexio puntua hartuz eta "Terrorismoaren aurkako gerran" gailendutako aitzakiari (emakume arabiar-musulmanak salbatuko dituztela) garrantzia emanez.

---

<sup>1</sup> Mendebaldeari buruzko erreferentziak egiterakoan, gehienbat Estatu Batuak eta Europa aipatu nahi dira.

<sup>2</sup> Lan honetan Ekialde Hurbilaren terminoak Irak herrialdea adierazi nahi du. Ekialde Ertaina aipatzerakoan, berriz, Afganistan herrialdea azaldu nahi du.

<sup>3</sup> Celia Amorósek (1994) azaltzen duen moduan, gizartean bi esparru edo eremu daude: publikoa eta pribatua. Amorósek aipatzen du eremu publikoan garatzen diren ekintzak emakumeen jarduererekin lotzen direla. Eta, ekintza hauek sozialki gutxiago baloratuak daude, ez baitute onarpen sozialik.

<sup>4</sup> 2016ko uztailaren 12tik abuztuko 3ra arte Espainiako GKE batekin boluntario moduan Pireo (Atenas) portuko errefuxiatu kanpamentu batean egon nintzen, kanpamendu horretako Ekialde Hurbileko eta Ertaineko jendearen errealitatea ezagutuz.

## 1.1. HELBURUAK

Lehenik eta behin, ikerketa honen xede nagusia hauxe da: 2001. eta 2003. urteetako inbasioetan, Mendebaldeak (batez ere, Estatu Batuek eta Europak) emakume irakiar eta afganiarrak askatuko dituenaren diskurtsoa aitzakia bat zela erakustea. Hau da, "Terrorismoaren kontrako Gerra" honetan Mendebaldearen helburu geopolitiko edota militarrek betearazteko, emakume irakiar eta afganiarrak hitzaldi horien fokua eta oinarria izango dira, diskurtso horiek (emakumea salbatuko dutenaren erretorika horrek) iritzi publikoan eragiteko errazagoa baita.

Horretarako, 2001. urtetik gaur egunera arte, Mendebaldeak eraikitako erretorikari buruzko beste diskurtsoak ere azalduko dira. Izan ere, beste erakundeek diskurtso hura bereganatu eta hedatu dute, Mendebaldeko gizartean sendotu arte. Hala nola, prentsan, telebistan, erakunde feministetan, etab. Hortaz, helburua aitzakiaren inguruan zer nolako sarea osatu den ezagutaraztea izango da.

Bukatzeko, genero ikuspegitik, bi inbasioak eragindako emakume afganiar eta irakiarren egoera soziopolitikoak argituko da. Izan ere, emakume hauen errealitatea ezagutu nahi da, bi inbasioek zer nolako eragina izan duten haiengan aztertuz. Hau da, inbasioen eragin positiboak eta negatiboak aztertuko dira. Era berean, emakume hauek agenda politiko baten parte bat besterik ez direla azalduko da, haien irudia manipulatu izan baita Estatubatuen eta Europaren agenda politikoa aurrera eramateko helburuarekin. Hortaz, emakume hauengan eragindako arazoak aurkeztuko dira, betiere buruhaustek testuinguru sozial eta politiko batean kokatuz.

## 1.2. HIPOTESIAK

Ikerketa honen hipotesi nagusia hauxe da: Mendebaldeko herrialdeen helburua ez da Afganistango eta Irakeko emakumeak salbatzea eta askatzea, baizik eta beste helburu geopolitiko, ekonomiko eta militarrek ahalbidetzeko aitzakia izatea.

Era berean, hedabideek eta erakunde publikoek biko diskurtso estereotipatuak osatzen dituzte (haiek/gu, Mendebaldea/Islama, emakume europarrak/emakume arabiar-musulmanak). Horrez gain, Estatu Batuetan eta Europan zabalduko den diskurtsoa feminismo hegemonikoan oinarritzen da. Izan ere, Mendebaldeak, feminismo hau baliatuz, emakume musulmanen askatasunaren ideia indartuko du, hijab menpekotasunaren sinonimoa bihurtuz.

Hori dela eta, inbasioetan emakume irakiarren eta afganiarren egoera laburbiltzeko, Mendebaldeak emakume hauen egoera lotuko du erlijioarekin, janzkerarekin edota buruko zapiarekin.

Hortaz aparte, lan honetan, Irak eta Afganistango inbasioetan, Mendebaldeko herrialdeek Nazio Batuetako 1325 ebazpena ez dutela betetzen planteatzen da. Izan ere, emakume hauek kontrako egoera baten aurrean aurkitzen dira, inbasioak eta gero emakumeen askatasuna eta eskubideak murriztagoak baitira.

### **1.3. METODOLOGIA**

Ikerketa honek metodologia kualitatiboa erabiliko du. Azterlan honetan Irakeko eta Afganistango inbasioetan, Mendebaldean sortutako emakume musulmanen askatasunari buruzko diskurtso eta erretorikak landuko dira. Eta, alderatu nahi da ea diskurtso horiek inbasio horiek justifikatzeko aitzakia izan diren edo benetan Mendebaldeko herrialde hauek (Estatu Batuak eta Europa) emakumeen askatasuna bilatu izan nahi duten. Ikerketa kualitatiboaren bidez, aurretik gai honen inguruan egin diren ikerketa akademiko eta zientifikoaz baliatuko da, diskurtsoen erabilpenak lan honen mamia baitira. Era berean, gizarte zientzietako ikuspegi kritikoetan oinarrituko da, batez ere Teoria edo Ikuspegi Postkolonialetan, hain zuzen ere.

Are gehiago, artikuluko horietan garatu diren diskurtso eta erretorikak, Nazio Batuetako 1325 ebazpenak azaltzen duen diskurtsoarekin konparatuko dira. Izan ere, Nazio Batuak bakea eta segurtasuna lortzeko helburua duen erakunde bat da, nazioarteko giza eskubideak eta nazioarteko justizia bultzatzen dituena. Eta, gatazkak saihestea, segurtasuna ekartzea eta gizartea babestearen helburuak ere ditu.

Beraz, Nazio Batuetako kide guztiek nazioarteko organo honen aurrean erantzukizun bat dute, erakunde honetan sinatzen diren ebazpen hauek eragina baitute kideengan eta kide hauek ebazpenak errespetatu behar dituzte. Hori dela eta, ikerketa kualitatibo honen bidez egiaztatu nahi da ea Mendebaldeko herrialdeek Irakeko eta Afganistango inbasioetan 1325 ebazpena errespetatu duten edo ez. Kontuan hartuta zer puntutaraino Mendebaldearen argudioa benetakoa ala aitzakia izan den.

Bestalde, aztertuko diren artikuluko zientifikoaren lokalizazioa eta selekzioa egiterako orduan, datu-base espainiar bat erabili da, Dialnet izenekoa. Horrez gain, Google bilatzailearen artikuluko zientifikoaren datu-baseari kontsultak egin dira, Google Scholar tresnari, alegia. Gainera, informazio gehiago edukitzeko asmoarekin, Ekialde Ertaineko eta Hurbileko, emakume musulmaneko eta bi inbasioetako adituen liburuak eta nazioarteko erakundeek egindako txosten ofizialak ere erabili dira.

Bukatzeko, metodologia generoa ikuspegitik<sup>5</sup> garatu da. Hori dela eta, lan honetan emakumeek garatu dituzten testuek garrantzi eta oinarri handiagoa izango dute. Izan ere, lan honen oinarri nagusia emakume afganiarren eta irakiarren ikuspuntua eta haien egoera soziopolitikoaren ezagutaraztea da. Hori dela eta, lan honetako metodologiaren helburu bat emakumezkoen ikuspegiak nabarmentzea izango da. Hau da, emakumeek azaldutako emakumeen historia izatea.

## **2. DISKURTSOEN ERAIKUNTZARI BURUZKO OINARRI TEORIKOAK: EKIALDE HURBIL ETA ERTAINARI BURUZKO MENDEBALDEKO IKUSKERAREN KASUA**

---

Lehenik eta behin, ikuskera hauek testuinguru baten barnean zehaztu behar dira, ikuspuntu hauek nazioarteko sistemaren parte baitira. Beraz, Adlbi Sibai doktoreak (2016) sistema globala kolonial, inperialista, patriarkal eta arrazista moduan definitzen du. Sistema honek baliabide natural, kultural, espiritual eta gizatiarren transferentziak edo ebasketak ezartzen baititu munduko bi herenen herrialdeetatik gutxiengo bateraino, azken honen pribilegio eta onurengatik. Modu horretan, sistema honen helburua hau da: sistema kolonial, patriarkal eta arrazista honek egiten duen guztia justifikazio arrazional batekin lotzea.

Halaber, sistema global honek eremu semantiko, esanahi, irudi eta diskurtsoak eraikitzen ditu, elementu hauek errealitatea justifikatzen, egiaztatzen eta zentzua jartzen dietelako. Konstruktibismo sozialaren ikuspuntutik, errealitatea sozialki eraikitzen da. Zentzu horretan, gizarteak mundutik ikusten duena ez da hark munduari buruz ezagutzen edota ulertzen duena, gertakariak deskribatzerako orduan erabiltzen dituen hitzak arau sozialetik datozelako. Eta, jazoera horiek egi absolutuak eta estatikoak izango dira (Gergen, 1996; hemen aipatuta: Cea-Merino et al., 2015). Era berean, objektuei buruz sortu den ezagutza mugatuta egongo da. Ezagutza historian zehar sortu diren diskurtsoen arabera zehaztuta egon baita, diskurtso horiek testuinguru sozial zehatz batean eraikiz (Ibañez, 2003).

---

<sup>5</sup> Ikerlan batean generoa ikuspegiak generoen arteko desberdintasunak erakutsi behar ditu. Hau da, zer nolako diskriminazioak garatu diren hainbat arloetan eragina edukiz: lana, familia, politika, erakundeak, historia, sexualitatea, osasuna, enpresak, artea, etab.

## 2.1. TEORIA POSTKOLONIALAK

Diskurtsoen eraikuntzari buruzko analisia egiteko, teoria postkolonialak aproposak eta erabilgarriak izan dira. Teoria postkoloniala azken hamarkadetan Mendebaldean sortu den ikuspegia da. Mendebaldeko pentsamendu sozialaren gakoak gainbegiratzen ditu, historian zehar, Mendebaldearen menpekotasun politiko eta militarra aztertuz (Romero Reche, 2012). Izan ere, Mendebaldeak uste du beste gizarteak (arabiar-musulmana, kasu) behekoak direla, eta, beraz, kontrolatu eta kolonizatuak izan behar direla.

Hortaz, Abu-Lughod antropologoak (2002) nabarmentzen duen moduan, Mendebaldeko diskurtsoetan eta ikerketetan gai batzuk planteatzen direnean, beste gai batzuk ez dira Mendebaldearen interesekoak. Mendebaldeak garrantzi gehiago ematen dio Ekialde Ertainak eta Hurbilak duen 'kulturari', sinesmen erlijiosoei eta emakumeen egoerari. Baina, gutxitan aztertu du historian zehar Estatu Batuek eduki duten rola. Edota Ekialde Hurbilean eta Ertainean sortu diren erregimen errepresiboen eboluzioa.

Hau da, Abu-Lughodren (2002) ikuspuntutik, adituek ez dute Ekialde Ertaina eta Hurbila aztertu historia eta politikaren ikuspuntutik, baizik eta, erlijio-kulturaren ikuspuntutik. Hori dela eta, Mendebaldeak biko mundu bat sortu du, fikziozko geografia bat eraikiz: Mendebaldea vs Ekialdea, gu vs musulmanak. Edward Saidek, ikuspegi postkolonialaren sortzaileak, (2002) esaten zuen moduan, "Orientalismoa Mendebaldeko estilo bat da. Mendebaldeak Ekialdea menderatu, berregituratu eta autoritatea izatea nahi baitu".

Horren ondorioz, diskurtso hauetan ezaugarri bat gailentzen da: Mendebaldeko gizarteak beste gizarteen aurrean nagusitasuna erakusten du. Hori dela eta, oinarri horretatik marko bitarrak sortzen dira Mendebaldeko gizartea gailenduz. Modu horretan, gizarte europearrak eta estatubatuarrak errealitateari horrela erreparatzen dio, errealitate hori era horretan kontrolatuz eta eraikiz. Hauxe guztia etnozentrismo kontzeptuarekin lotzen da. Izan ere, 1492. urtean, konkisten ostean, Europak beste kultura guztiak periferian jarri zituen.

Horrekin batera, inperialismoak justifikazioak eraikitzeke, hainbat froga eduki behar zituen. Hori dela eta, gehienbat bi froga justifikagarriak eratu zituzten. Alde batetik, Mendebaldearen 'betebeharra' Ekialde Hurbileko, Ekialde Ertaineko eta Ipar Afrikako herrialdeak azpigarapen eta basakerietatik ateratzea izan zen, 'Bestea' ikusezina baitzen. Aitzakia hau aurrera eramateko, Mendebaldea ideia honetan oinarritu zen: haren ustez, 'Besteek' indarkeria jarraitua zuten eta Mendebaldeak, aldiz, arazo guztiak arauketen bidez konpontzen zituen. Beraz, indarkeri hura zela eta, beste herrialde hauek basakeriak pairatzen zituzten. Bestetik, Europak askatasun misioa zuen, salbatzaile bat baitzen eta haren helburua Europak izan zituen garapenezko etapa historiko berdinak Besteek ere edukitzea izan zen (Pachón Soto, 2007).



Horren ondorioz, haien nagusitasuna handitzeko eta justifikatzeko, europarrek emakumeen askatasuna lortuko zutenaren aitzakia garatu zuten. Orientalismoa sexista zen, batik bat, Mendebaldeko gizonak haien idatzi eta obretan, emakume arabiarren irudikapena haxe izaten zelako: sexuala, ergela, atsegina eta adeitsua. Beste modu batean esanda, Orientalismoak, modu matxista batean, Ekialdearen gainetik Mendebaldeko boterea irudikatzen du, Mendebaldearen ikuspuntutik, Ekialdeak sinbolizatzen baitu emakumeen irudikapena azpikoa, barregarria eta sexuala dela (Said, 2002).

Momentu horretan justifikazio hori aurrera eramatea erraza zen, Europarentzat Ekialde Hurbila eta Ertaina kulturalki, politikoki eta historikoki azpikoa zelako eta Ekialde Hurbileko gizon eta emakumeen artean, europarrek gizon arabiar-musulmanen azpian kolokatzen zuten Ekialde Ertaineko eta Hurbileko emakumea, haien sistema europarra ere patriarkala zelako (Adlbi Sibai, 2016).

Bestalde, Abu-Lughodek (2002) argitutako marko bitarren adibideak haxe izan daitezke: demokratikoak/basatiak, garatuak/azpigaratuak, Mendebaldea/Besteak, tradizioa/ modernitatea, erlijioa/sekularizazioa, etab. Edo, esparru zehatzago batean: emakumeen buruko zapia (zapalkuntza)/ emakumeen takoiak (askatasuna). Izan ere, biko banaketa horretan, 'Besteek' komunikazio kanalak itxita dituzte. Hori dela eta, sortutako eta hedatutako errealitatea Mendebaldeak eraiki du. Adlbi Sibai (2016) esaten duen moduan:

“irudi eta diskurtso horiei esker, guk geuk geure burua definitzen dugun bitartean, Mendebaldekoak ez diren beste herri, kultur edota pertsonak ere definituko ditugu”.

Hortaz, emakume eta Islamaren inguruan sortu diren diskurtsoak kolonialismoak eta horren botereak garatu egin ditu, diskurtso horien oinarria hijab<sup>6</sup> zapia<sup>7</sup> eramaten duen emakume musulmana izanik.

Hortaz aparte, Mendebaldeko sistemak lortu du haren epistemologia eta mundu-ikuskerak lokala izatetik, unibertsal, neutral, objektiboa eta abstraktu moduan aurkeztua izatera. Hau da, Mendebaldeko gizonaren ezagutza da kontzientzia unibertsala lor dezakeen bakarra (Mignolo, 1996 eta Castro-Gómez, 2004; hemen aipatuta: Adlbi Sibai, 2016).

---

<sup>6</sup> Hijab edo hiyab: emakume musulmanak haien ilea (eta batzuetan, lepoa) estaltzeko erabilitako zapia. Aurpegi guztia agerikoa da, eta segun eta zein den komunitate edota herrialdea tamaina, kolore edo kokapen desberdinak izan ahal ditu.

<sup>7</sup> Buruko zapiari buruzko informazio eta esanahi gehiagoren azalpena eranskinetan dago.

Horregatik, kontuan hartu behar da Ekialde Hurbila, Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika osatzen duten herrialdeek historia eta egoera ekonomiko, politiko, demografiko eta geografiko desberdinak dituztela. Baina, Adlbi Sibai (2016) azaldu duenez, herrialde arabiar-musulmanak menderatuak izan dira politikoki, ekonomikoki eta kulturalki. Horren ondorioz, herrialde hauek arpilatuak eta txirotuagoak bilakatu dira.

Izan ere, herrialde gehienak diktadura basati baten menpean daude, gobernuetako eliteak ustelak izanik, hauek haien populazioa zapalduz eta Nazioarteko Diru Funtza eta Munduko Bankuaren laguntza edukiz. Modu horretan, herrialde hauek pobrezia, analfabetismoa, langabezia, gatazkak eta indarkeria sistematikoa eta estrukturala dute. Aldi berean, zonalde hauek ez dute askatasunik, giza eskubiderik edota justiziarik. Testuinguru honetan, emakumeak onuragarria ez den egoera batean daude, arlo ekonomikoan, sozialean, politikoan eta kulturean. Gainera, herrialde arabiar batzuetan Islam erlijioa instituzionalizatu egin da eta alderdi soziopolitikoan instrumentu moduan erabiltzen da (Adlbi Sibai, 2016).

Orobat, Mendebaldeko historian zehar, hainbat diskurtso (kolonialak) eratu dira segun eta zein den testuinguru soziopolitikoak. Hortaz, testuinguruaren arabera, emakume bakoitzak egoera desberdina du eta hainbat botere-estrukturen eraginpean bizi da. Horregatik, emakume guztiak definituta daude faktore desberdinengatik: arraza, sexua, generoa, adina, etnia, kultura, erlijioa, klase ekonomikoa, gerra-egoerak, krisialdiak, gaixotasunak, eta abar (Adlbi Sibai, 2016).

Hori dela eta, Teresa Terronek (2012) aipatzen duen moduan, emakume hauei buruz hitz egiterakoan, ezin daitezke egoera hauek sinplifikatu edota orokortu. Izan ere, adibide bat jartzeagatik, emakumeak aldi berean arabiarrek eta musulmanak izan daitezke, arabiarrek baina ez erlijio musulmanekoak, edo alderantziz: musulmanak, baina, ez arabiarrek.

Dena den, nahiz eta herrialde konplexuak eta zonalde desberdinak izan, denek homogeneotasun puntu bat dute: jurisprudentzia islamikoa. Hau da, nahiz eta hizkuntza bera ez eduki, emakume hauen lotura hauxe da: legez gizonen babesa dute, Islamaren testu sakratuen interpretazio okerra ematearen ondorioz. Horren adibideak izan daitezke ohorezko krimenak, nahitaezko ezkontzak, harrika amaitzeak, etab. Baina, honek ez du zurigarri bat izan behar emakume hauentzat. Izan ere, emakume hauek, besteek bezala, genero desberdinkeria ere pairatzen dute (Lamrabet, 2009:3).

Hala ere, Adlbi Sibaik (2016) aipatzen duenez, emakume arabiar musulman guztien egoerak polarizatu dira, gero eta muturragoak izanik. Izan ere, bi erretorika nabarmentzen dira. Alde batetik, Mendebaldeak zabaltzen duen erretorika: modernizazioa, askatasuna eta haien emantzipazioa ekarriko duena. Bestetik, Islamak edo tradizioak zabaltzen duen erretorika: gutxiegitasun eta desberdintasunarena.

Gainera, erretorika hauei lotuta dagoen kontzeptu bat dago: islamofobia. Mijaresek eta Ramírezek (2008) azaltzen duten moduan, islamofobia Islamaren eta musulmanen kontrako diskriminazioa deritzo. Diskriminazio horiek gorroto edota nazka manifestazioen bidez adieraz daitezke. Gertakari honek bost mende ditu, eta, diskurtso islamofobikoak aldatu eta moldatu dira urteetan zehar (egoera soziopolitikoak, juridikoak eta instituzionalak aldatu diren moduan).

Islamofobiaren etapak hiru inflexio-puntuak izan ditu: kolonialismoan, Bigarren Mundu Gerraren ostean eta Dorre Bikien atentatuaren ostean. Hori dela eta, nahiz eta 2001. urtetik aurrera hedabide eta erakunde europarrek eta estatubatuarrek kontzeptu hau gehiago erabili izana, horrek ez du esan nahi jazoera berria izan denik.

Izan ere, termino honen erabilera egoera konkretu bat deskribatzeko modu berri bat bilakatu da. Estatu Batuek eta Britainia Handiak terrorismoaren aurkako kanpaina hasi baitzuten, baina, terrorismoa estrapolatu zen, musulmanak edo Islamaren erlijioa ere terrorismo bezala hartuz eta pertsona musulmanengan diskriminazioa eta indarkeria (hots, islamofobia) handituz (Bravo López, 2009: 63-69).

Era berean, diskriminazioa instituzionala bihurtu da, Mendebaldean gertatu diren atentatuak direla eta, hala nola, New Yorken, Madrilan edota Londresen. Egoera honetan, nazioarteko erakundeek islamofobiari buruzko analisiak burutu dituzte. Horien artean, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak, 2004. urtean, arazo hura aztertu zuen honako tituluarekin: "Le racisme, la discrimination raciale, la xénophobie et toutes les formes de discrimination". Dokumentu honetan batzorde honek aipatzen du intelektuaren legitimazioak Islamaren kontrako gorrotoa areagotzen duela, hedabideetan aritzen diren eragin handiko pertsonen laguntzarekin (Mijares eta Ramírez, 2008).

## 2.2. KOLONIALISMOAN SORTUTAKO DISKURTSOAK

‘Emakume arabiar-musulmanen askatasunaren’ aitzakia ez da azken hamarkadetan sortutako zerbait. Izan ere, kolonialismo garaietatik sortutako kontzeptu bat izan da. XIX. mendean, Viktoriar Aroan, sortu zen, Mendebaldeko potentziek Ekialde Ertaina eta Hurbila konkistatu zutenean. Konkistatzaile hauentzat, Ekialde Hurbileko eta Ertaineko kultura, erlijio, ohitura eta jendetza Europarekin konparatuz azpikoa zen.

Momentu horretan, *hijab* izeneko janzkia eztabaida baten barnean jarri zuten orientalistek eta menderatzaileek. Hau da, kolonialista, bidaiari, artista, misiolari, feminista eta politiko europarrek ideia bakar bat atera zuten emakume musulmana deskribatzerakoan: zapiak haien kultura zapaltzen zuela, askatasuna lortzeko kate bat baitzen.

Hala ere, europarrek emakumeen askatasuna eta zapiaren kontrako ideologia eduki zuten pertsona bakarrak ez ziren izan. Konkretuki, Ekialde Ertaineko eta Hurbileko herrialde bakoitzaren eliteak ere eskatzen zuen emakumearen askatasuna, Europaren pausuak segitzeko asmoz (Bullock, 2002:4). Horrela, Spivak pentsalariak (1999) esaten duen moduan, historian zehar, emakume hauek mugatuta egon dira botere eta menderatze faktoreak direla medio. Eta, faktore hauek inperialismoa eta patriarkatua dira (Spivak, 1988; 1999; hemen aipatuta: Adlbi Sibai, 2016).

Dena den, XIX. mendea baino lehenago, buruko zapia edo hijab jada existitzen zen, haien janzteko ohiturarekin lotuz. Kasu honetan, aniztasun geografikoa eta erlijio-kultura kontuan hartuta, arropa ere askotarikoa zen: haik, chador, niqab, buruko zapia, etab. Betiere emakumeen gorputza estaliz. Baina, adibidez, Marokon haien janzteko estiloagatik emakume musulmanak eta emakume juduak ez ziren desberdintzen, biek soineko berdina erabiltzen baitzuten janzteko (Lamrabet, 2014:36).

Horregatik, Ekialde Hurbileko eta Ertaineko herrialdeek kanpotik zetorren askatasun ideia horrek ‘atzerritar’ moduan hartu zuten (kontuan hartu behar dugu herrialde europarren menpean zeudela eta independentzia lortzeko sentimenduak zabaldu zirela). Hortaz, herrialde batzuetan, hala nola, Egipton edo Aljerian, emakumeek zapia janzten zuten sentimendu musulmana eta nazionala defendatzeko asmoz, konkistatzaileen aurrean.

Beraz, emakume musulmanen janzkera kolonialismotik aurrera baliabide politiko bat bihurtu zen. Momentu horretan, Europako herrialdeetan feminismoaren aldeko mugimenduak sortu ziren, Mendebaldeko emakumeen eskubideak handitzeko asmoz. Baina, konkistatzaileak korrante feminista horien ideologia justifikazio moduan erabil ahal zutela jabetu ziren.

Beraz, Ekialde Hurbilean eta Ertainean ere zurigarri hura aplikatu zen: feminismoaren izenean askatzen ari ziren emakume hauek (Viner, 2002). Baina, konstitatzaileek Ekialdeko emakumeen askatasuna eskatzen zuten bitartean, haien herrialdeetan sortutako mugimendu sufragistaren kontra zeuden.

Horren adibide izan daiteke Egipton egondako kontsul ingeles (Lord Cromer) baten ideologia: Britainia Handian gertatzen ari zen emakumeen mugimendu eta sufragismo unibertsalaren kontra zegoen, baina, Ekialde Ertainean eta Hurbilean emakumeek hijab ez erabiltzearen defendatzaile sutsua bihurtu zen (Ahmed, 2011; hemen aipatuta: Viner, 2002).

Espainiaren kasuan, Maroko eta Espainiaren arteko gerretan zehar (1909-1921) berriemaileak Marokora joan ziren han gertatzen ari ziren albistek berriemateko (gogoratu behar da Maroko Espainiaren kolonia zela). Beste herrialdeetan gertatu zen moduan, kazetariak Espainiako inperialismoaren aldeko berriak idatzi zituzten, propagandistikoak, zibilizazio ekarri zutelakoaren justifikazioarekin.

Gainera, Marokon aritu ziren lau kazetari emakumeek (Carmen de Burgos, Consuelo González Ramos, Teresa Escoriaza eta Margarita Ruiz de Lihory) argi eta garbi utzi zuten Marokoko emakumeak gutxienezko egoera batean bizi zirela, eskubide gutxiagorekin (ikusuntu estereotipatu batetik aztertu zuten), eta egoera horretatik armada espainiarrak askatu behar ziela, azken hauek legitimazio osoa baitzuen hango biztanleri osoaren aurka jotzeko (Marín, 2013:40).

Irakeko herrialdearen kasuan, britainiarren mandatuko (1914-1932) Konstituzioak baieztatzen zuen emakumeen hiritartasuna ez zela gizonen hiritartasuna bezala, emakumeek ez baitzuten bozkatzeko eskubiderik edota politikan parte hartzeko aukerarik. Britainiarrek eta eliteko intelektualek ama eta emazte ilustratuaren ideia zabaldu zuten, ideia honek gizartearen aurrerapenaren sinonimo moduan aurkeztuz. Horrela, konkistatzaileek ez zuten haien programa politikoa nesken hezkuntzan zentratzen, baizik eta neska hauek ama adeitsuak bihurtzen. Horrela, Irakek *status quo*-a lor zezakeen. Beraz, emakume hauek ez zuten hezkuntzan edo osasunean sartzeko aukerarik, haien funtzioa bakarra ama izatea baitzen.

Bestalde, beste kolonietan gertatu zen moduan, europarren modernitatea lortzeko, emakumeak modernitatearen eta, aldi berean, atzerapenaren sinboloa bihurtu ziren. Hau da, alde batetik, balore nazionalistaren ordezkariak bihurtu ziren, haien identitate propioa babestuz. Bestetik, buruko zapiaren ezabaketaren ordezkariak bihurtu ziren, zapia kenduz gero, herrialde modernoak bihurtuko baitzen. Hortaz, emakumeen papera politizatua bihurtu zen, emakumeen kontua progresisten eta kontserbadoreen, laikoaren eta erlijiosoaren arteko bereizketa izanez (Mediavilla, 2014).

Modu horretan, konkistatzaileek haien helburua lortu zuten: haien garaipenak legitimoak izatea, inperialismo europarra zabalduz eta gutxiagotasun kontzeptua hedatuz. Horrela, haien 'misioa' burutu zuten: Ekialde Ertainean, Hurbilean eta Ipar Afrikan zibilizazioa hedatzea eta emakumea salbatzea haren zapalketatik. Modu horretan, konkistatzaileek egin zutena hauxe izan zen: hasiera batean jantzeko era bat zena manipulazioa bihurtu zuten, irudi estereotipatu bat emanaz eta emakume arabiar-musulmanen arazo bakarra zapia izanez (Lamrabet, 2014:36).

### **2.2.1. Feminismo hegemoniko eta homogeenaren diskurtsoa**

Kolonialismoaren atalean, diskurtso inperialistetako feminismoaren erabilera aztertu da. Baina, feminismo hegemonikoaren diskurtsoa ez da XIX. mendeko gertaera isolatu bat. Gaur egun, oraindik garrantzia handiko hitzaldi bat da, eta, XXI. mendeko diskurtsoari gaur egun ingelesez *purplewashing* deitzen zaio, eta, hitzez hitz hauxe izan nahi du: emakumeen eskubideak eta feminismoa erabiltzea nahi dutenerako, alegia. Hau da, Brigitte Vasallok (2016) definitzen duen moduan, Mendebaldeko feministen borroka erabiltzen ditu gutxiengo baten biztanlerien kontrako politikak legitimizatzeko. Orduan, emakumeen eskubideen bahiketa eta hartzea egiten da emakume batzuegan eragina dituzten akzio diskriminatzaileak aurrera eramateko (gu eta haien arteko erretorika erabiliz). Hots, Europa liberal eta feminista baten izenean eta emakume-eskubideen babesaren izenean, lege matxistak eta diskriminatzaile batzuk beste emakume batzuen eskubideak urratzen dituzte (Vasallo, 2014).

Modu horretan, Mendebaldeko emakumeen irudia agente aktibo, aske eta emantzipatua zabaltzen den bitartean, Mendebaldeko feminismoa inposatzen da askatasuna, prozesua eta garapena lortzeko bide bakar moduan (Mohanty, 2003; hemen aipatuta: Adlbi Sibai, 2016). Hau da, mendebaldeko emakume feministek haien identitatea eraiki eta inposatu dute beste emakumeen aurrean. Beste emakumeak pobreak, ez adeitsuak, biktimak, fededunak, tradizionalak eta etxeko esparruan daudenak dira. Mendebaldeko emakumeak, aldiz, adeitsuak, modernoak, askeak, independenteak eta haren gorputza menderatzen dutenak dira (Ali, 2012).

Horrela, Mendebaldeko feminismoak beste kultura batzuetako emakumeak biktima pasibo moduan aurkezten du, estrategia kolonialekin gertatzen zen moduan. Hortaz, eskubideen artean aurkako binomio bat sortzen da, emakume musulman eta emakumeen eskubideen artean, hain zuzen ere. Era berean, feminismo hegemonikoak emakume musulmanen aldeko eskubideak aldarrikatzen ditu, baina, emakume musulmanei kontsultatu gabe. Emakume musulman hauek kokatzen baitira ikusezintasunaren linbo batean, baztertuak izanez (Vasallo, 2016).

Horregatik, Mendebaldeko feminismoaren ikuspuntutik, buruko zapia zapalkuntzaren sinonimoa da. Asma Lamrabetek (2014) azaltzen du feminista laikoentzat hijab-a agindu patriarkal bat dela, emakumeen gorputzak libreki kontrolatzeko ukapena izanez.

Bestalde, feminismo honek ez du konponbiderik ipintzen feminista, europarra eta mendebaldeko diskurtsoetan emakume arabiar-musulman hauek ez badira identifikatzen. Hau da, ez du aipatzen nola emakume batek haren erlijioa utzi behar duen, nola haren identitatearen elementua alde batera utzi behar duen behartuta sentitu gabe. Eta, diskurtso hauek ez dute ikusten emakume musulmanek emantzipazioko diskurtsoak egiteko kapazitatetik eduki ahal dutela. Hori dela eta, feminismo laikoa, europarra eta hegemoniko hauek erabiliak dira emakume arabiar-musulman hauen gainean sistema patriarkala mantentzeko (Valcarcel eta Rivera de la Fuente, 2014).

### **2.3. PROPAGANDA, ERRETORIKA POLITIKOA ETA DISKURTSO SOZIALA**

Margaret Thatcherrek eta Ronald Reaganek neoliberalismoa burutu zutenetik, ekintzen eta hitzen kontzeptuak bananduta geratu dira. Edo, behintzat banandu daitezkeen ideiak dira. Izan ere, Millerrek (2006) azaldu duenez, "arrakasta politikoa izateko ez da beharrezkoa tinko eta zuzen jardutea, baizik eta politiko batek esandakoa herriak tinko eta zuzena dela pentsatzea". Baina, hau da ez berria ezta harrigarria ere, elite politikoak sinisten baitu hark gezurrak esateko eskubidea duela, haren interes propioen aldekoa izanez. Dena den, berritasun puntu bat dago: herrialde demokratikoetan, sare propagandistiko bat hedatu da, herritarrek ez dakitelako zer den eta zer ez den egia (Miller, 2006).

Honek manipulazioarekin erlazioa du. Van Dijk-en (2006) arabera, manipulazioa komunikazio interakzionala da, non manipulatzaileak beste pertsona batzuen gaineko kontrola eragiten du, orokorrean pertsona hauen interesen eta borondateen aurka izanez. Hori dela eta, manipulazioak boterea barneratzeaz aparte, boterearen gehiegikeria eta menperatzea ere da. Hortaz, diskurtsoen arabera, manipulazioa manipulatzaileek egiten dutena beste batzuek sinistea datza, manipulatzaileen (eliteen) interesaren aldekoa izanez eta desberdintasun soziala bultzatuz.

Modu horretan, manipulazioak harreman zuzena du propagandarekin, propagandak esanahi ideologikoak eraikitzen edota adierazten baititu (Screti, 2011). Eta, propaganda informazio faltsuetan oinarritutako ekintza da, Mendebaldeko gizartearen iritzia publikoa irabazteko orientatua. Horrela, esku-hartze militarra ikuspuntu politiko eta juridiko batetik azal daiteke (Pizarroso Quintero, 2008).

Hori dela eta, kontuan hartu behar da gerra bateko propaganda gizakien arteko komunikazio prozesu bakarra dela, denbora, espazioa eta lokalizazio geografikoa kontuan hartu barik (Pineda Cachero, 2004).

Beraz, manipulazioak bi ezaugarri ditu. Alde batetik, jazoera sozial bat da, hainbat talde desberdinen interakzioa eta gehiegikeria gauzatzen baita. Bestetik, kognizioaren bidez, jazoera diskurtsibo-semiotikoa da, idatzizko edo ahozko hitzen bidez manipulazioa hedatzen baita. Izan ere, diskurtso publikoa, aldi berean, botere-gehiegikeriaren erreproduzio sozial bat da (Van Dijk, 2006). Eta, diskurtso horien artean eta, batez ere, propagandak erabiltzen duena gezurra da. Manipulazioan gezurra erabiltzeak desinformazioa esan nahi baitu (Pizarroso Quintero, 2008).

Modu horretan, propagandak eta batez ere diskurtsoak nola eragiten duten jakiteko, propagandak, informazioa prozesatzeko orduan, epe laburreko oroimenera eragiten du. Prozesu honetan, pertsona bakoitzak jasotako diskurtsoa zertaz doan ulertu nahi du (hitzak, esaldiak, mugimendu korporalak, etab.). Eta, esanahia ematen dio informazio bakoitzari. Baina, diskurtso propagandistikoen helburua haratago heltzea da. Izan ere, xedea epe luzeko oroimenean eragitea da, hau da, aktitude, ezagutza eta ideologietan, alegia.

Epe luzeko oroimenean eragiteko hainbat estrategiak daude. Lehenengo teknika orokortzea da. New Yorkeko Dorre Bikien atentatuaren ostean, hiritar bakoitzak dituen ekintzen buruzko pertzepzioak orokortzen dira terrorismoari buruzko ideologia, beldur eta aktitude orokorretara. Beraz, inpaktu handia izan duen gertaera emozionala erabiltzen da talde eliteko interesen aldeko inpaktua izateko. Ondoren, mezu horiek errepikatzen dira, beste herrialdeetan gertatutako erasoei (Madril edota Londreseko atentatuei) garrantzia emanez.

Horrela, manipulatzailen benetako interesak edota etekinak ezkututzen dira, diskurtsoetan gizarte guztiak edukiko dituen interesak bakarrik aipatzen dituztelako. Hortaz, jende guztiak edukiko dituen mozkinari (kasu honetan segurtasunari) garrantzia ematen die. Hortaz, diskurtso propagandistikoen gakoa da hartzaileek (pertsonak, taldeak, etab.) akzio edo politika batzuk haien interes aldekoak direla sinistea, manipulatzailen interesen aldekoa denean (Van Dijk, 2006).

Horren ondorioz, propaganda esku-hartze militarrean ere erabili da, militarren kemenak eta gizartearen iritzi publikoak kontrolatuta egoteko. Hain garrantzitsua da propaganda estrategia militar moduan, non Estatu Batuetako armadak unitate espezializatuak ditu, beharrezko medio eta kapazitatearekin, operazio psikologikoak eta propagandistikoak aurrera eramateko (Pizarroso Quintero, 2009).



Aurreko diskurtsoak aztertu eta gero, erretorika hauek burutzeko hedabideen laguntza ezinbestekoa izan dela ikus daiteke. Komunikabideak kapazak dira irudi edota diskurtso bati sinesgarritasuna emateko (Crespo Fernández, 2008: 46). Hori dela eta, edozein komunikabidek oinarrizko rol bat du, haren helburua baita populazioak ez dakien informazioa eskaintzea.

Baina, hedabideek bi helburu dituzte. Alde batetik, audientzia batzea eta erosleak bateratzea. Eta, bestetik, errentagarritasun finantzarioa lortzea. Hala ere, beti erantzukizun bat dute, hauek baitira erabakitzen dituztenak zein ordutan zer zabalduko den, zein nolako formatu eta tratamenduari. Izan ere, komunikabideak ere boterean eta sozializazioaren medioak dira, interes konkretu batzuekin (Desrues, 2008: 5-6).

Izan ere, Carterrek eta Steinerrek (2004) azaltzen duten moduan, hedabideek iritzi publikoan eragina duten baliabide garrantzitsuak dira. Izan ere, hedabideen diskurtso hegemonikoek ez dute bakarrik errealitate bat islatzen, baizik eta zer onartu behar den errealitate moduan definitzen dute. Gainera, hedabideek diskurtso hauek 'errealak' eta zentzuzkoak bezala aurkezten dituzte, kontuan hartuta irudi hauek gizartean dauden talde boteretsuekin adosten direla.

Baina, hedabideen diskurtsoak era desberdinean aurkezten dira gerra garaietan. Orokorrean, gerra bat salbuespenezko krisialdi bat da. Horregatik, bake denboraldietan dagoen prentsa askatasuna eta informaziorako eskubideen araudia ez da berdina izango gerra garaietan. Izan ere, kasu honetan, prentsa askatasunak eta informaziorako eskubideak murrizketak pairatzen ditu, gobernuen zentsurak edota kazetarien eta hedabideen auto-zentsurak direla eta (Proaño, 1991: 14).

Hala ere, zentsura ez da komunikabideek gerretan erabiltzen duten taktika bakarra. Izan ere, hedabideek beste bi baliabide erabiltzen dituzte informazioa ematerako orduan: informatzen ez duten informazioa ematea eta informazio faltsua eskaintzea. Lehenengo kasuan, helburua ikusle edo irakurleari ahalik eta informazio gehien ematea da, baina, pertsuasio eta emozio kutsuarekin. Horrela, hiritarrak ez daki zer den benetan gertatzen ari dena. Bigarren kasuan, aldiz, desinformazioa da. Hau da, kazetaritza belikoan kazetariak datuak gehienbat iturri ofizialetik hartzen dituzte, eta, iturri ofizial hauek ematen duten informazioa toxikoa eta propagandistikoa da (Alsina, 2002: 44-45).

Gainera, interesgarria izan daiteke gerra batean zer nolako interesa duten gobernuak informazioa kontrolatzeko nahiarekin. Horregatik, gerra bateko komunikazio prozesuaren kontrolak propaganda eta manipulazio bultzatzen du, neutraltasun guztia ezabatuz eta haren helburua arma estrategiko bat eraikitzea izanez (Cebrián, 2004: 72; hemen aipatuta: Valiña, 2016).

Aldi berean, Navarrok (2010) Mendebaldeko komunikabideak aztertu eta gero, hainbat ondorio osatu zituen. Alde batetik, emakume musulmanaren irudia eraikitzen duten hedabide europarrek eta estatubatuarrek honelako diskurtsoa eraikitzen dute: biktimizazioa eta pasibotasuna. Alde batetik, *Mass mediak* biktimizazio hura "Islameko gizonen indarkeria" edota Islamismo fundamentalista kontzeptuekin atxikitzen du. Bestetik, hedabide hauek emakume hauen askatasuna Mendebaldeko estilo janzkerarekin lotzen dute, komunikabide hauek Mendebaldeko arropa bakarrik janzten dituzten emakumeak igarriz. Horren ondorioz, zapi islamikoa menpekotasunarekin lotzen dute hedabideek. Hortaz, komunikabideek janzkera hura borondatez ipintzea intolerantziaren adierazpenarekin erlazionatzen dute.

## 2.4. NAZIO BATUEN DISKURTSOA

Kontuan hartuta emakume irakiarrak eta afganiarrak gatazka egoera batean bizi direla, aproposa da borroka egoera batean aurrean, Nazio Batuen ebazpenek zer nolako aginduak edota gomendioak ematen dituzten aztertzea. Beraz, hasteko, aipatu beharrezkoa da Nazio Batuak gerren egoerei buruzko ebazpenak eman dituela. Orduan, emakumeei buruzko atal bat du, Nazio Batuak ulertzen baitu gatazka egoeretan umeak eta emakumeak direla pertsona zibil ahulenak. Hori dela eta, 2000ko urriaren 31n, Nazio Batuko Segurtasun Kontseiluak gatazka beliko eta emakumeei buruzko ebazpen bat onartu zuen. Nazio Batuak sortu eta 55 urte beranduago, gai hura lantzen zuen lehenengo ebazpena burutu zen. Ebazpen horri 1325 deitu zitzaion.

Ebazpen honen bidez, Carmen Magallón Portolések (2008) azaltzen duen moduan, "Idazkari nagusi eta Estatu kide guztiei bultzatzen zaie bake eratze prozesuetan eta gerraosteko berregiteetan emakumeen barneratzea lortzea". Hau da, Idazkari Nagusiak eta Estatu kideek lan gehiago egin behar dute bakea eraikitze eta gatazkaren osteko berreraikitzean, emakumeak prozesuen parte izateko.

1325 ebazpen honek emakumeak bake prozeduren parte hartzea nazioarteko segurtasunaren gai nagusia bihurtzen du. Nazio Batuko Segurtasun Kontseiluak ebazpen hura urte horretan onartzea ez da kasualitatea. Gizarte mugimenduen adituek azaltzen dute Nazio Batuen barne eta kanpoko erakundeek emakumearen egoera nazioarteko segurtasun agendaren barnean batzea lortu dutela, gai honen inguruan batasuna lortuz. Dena den, ebazpen honek harreman zuzena du Sobietar Batasunaren desagerpenarekin. Momentu hartan, 'emakume' eta 'giza eskubideei' buruzko diskurtsoek aldaketak izan zituzten, emakumeen egoera nazioarteko gobernuen arazoa bilakatu (Harrington, 2011).

Ebazpena Gerra Hotzaren osteko urteetan kokatu behar da, Estatu Batuak nazioarteko demokraziaren lider bakarra eta emakumeen eta umeen eskubideen defendatzailea izanez, hain zuzen ere. Aro berri honetan, bake prozesuetako bozeramaile berriak behar dira, eta, horren ondorioz, emakumeen eskubideak horren jomuga bihurtzen dira (Harrington, 2011).

Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpenak, lan arloan, genero, bake, segurtasun eta garapenari buruzko gaiak planteatzen dituen politikak eta programazioak hedatzeko eta hobetzeko erabilgarria izan da. Aldi berean, ebazpen honek plataforma moduan jarduten du, gizarte zibilak gobernuei erantzukizun gehiago eskatzeko eta, gerretan eta gerraostetan, emakumeek pairatzen duten biolentziaren arazoa planteatzeko, ikuspuntu politiko eta publiko batetik (Jackie Kirk eta Suzanne Taylor, 2008).

Ebazpen honek Segurtasun Kontseiluari, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari, Estatu kidei eta bestelakoei (gizarte zibilak, agentzia humanitarioak, militarrek) deitzen die ebazpen honetan batzen diren akzioak betetzeko. Izan ere, ebazpen honek nazioarteko atentzio oso gai konkretu batean zentratzen du. Hori dela eta, marko politiko bat eskaintzen du, gobernu eta nazioarteko erakundeek neurri aproposak hartzeko gomendioak ematen baititu.

Ebazpenak 18 puntu ditu, erlazionatutako lau arlo desberdinetan banatuta daudenak:

- Emakumeen parte hartzearen hazkundera bake erabaki hartze eta prozesuetan.
- Genero ikuspegiaren barneraketa bake-operazio eta mantenimenduan.
- Emakumeen eta nesken eskubideen babesak. Konkreterik, gatazka armatuetan eta gerraosteko egoeretan emakumeen babespena.
- Generoari buruzko gaia ardatz transbersala edo zeharkako ardatz ('eje transversal') bat bihurtzea Nazio Batuak duen informazio sistemetan eta datu bilketan, eta praktika hau hainbat programetan aplikatzea.

Ebazpen honetan, Segurtasun Kontseiluak onartu duenez, "botere egituretan emakumeak sarbide osoa eta parte hartze totala eduki behar du". Izan ere, prebentzio eta gatazken ebazpenetan haren inplikazio osoa ezinbestekoa da segurtasun eta bakea mantentzeko eta promozionatzeko (Carmen Magallón Portolés, 2008).

Beraz, emakume eta nesken eskubideak babesterako orduan, 1325 ebazpenak aitortzen du genero-desberdintasunak daudela giza eskubideen babesari dagokionez leku gatazkatsuetan eta gerraostetan. Gainera, ebazpenak dei bat egiten du gatazka armatu baten partaide guztiek neurri bereziak hartzeko eta emakumeak eta neskek biolentziatik babesteko.

Neurri berezi batzuk hauxe dira: emakumeen eskubideak nazioarteko errespetu legegilea izatea, biolentzia sexualagatik eta emakume izatetik sufritzen duten biolentziatik emakumeak eta neskak babestea, genozidio eta gerra krimenen eragilean zigorgabetasunarekin amaitzea eta abar (Jackie Kirk eta Suzanne Taylor, 2008).

Izan ere, ebazpenak azpimarratzen du emakume hauek babesteko neurriak hartu behar direla, pertsona hauek bortxaketak, eraso sexualak eta bestelako indarkeriak pairatzen dituztelako. Hortaz, berdin du gerra edo gerraosteko egoeratan izatea, emakumeak beti babestu behar direla, errefuxiatuak eta barne kanporatuak kontuan hartuz (Jackie Kirk eta Suzanne Taylor, 2008).

Hori dela eta, ebazpen honetan bi kontzeptu nabarmentzen dira. Alde batetik, ebazpena emakumeen babeserako dei bat da, emakumeak talde ahul moduan azalduz. Baina, bestetik, aurreko ikuspegiak bat egiten du emakumeak agente aktiboak izan behar direla, ahots propioarekin. Horrela, bake prozesuetan emakumeen esku-hartzea badago, pluraltasuna lortzen da eta berdintasun gehiago lortuko da gerraosteko erakundeetan eta bake prozesuetan (Carmen Magallón Portolés, 2008-2009).

Bukatzeko, ebazpen hau oinarritzat hartuta, aztertuko da Irak eta Afganistango inbasioetan, Estatu Batuek eta gerretan parte hartu zuten beste herrialde europarrek ebazpena errespetatu zuten edo emakumeen askatasuna helburu geopolitikoak lortzeko beste taktika bat izan zen.

### **3. EMAKUME ARABIAIAR-MUSULMANEN EGOERA XX-XXI. MENDEETAN**

---

Hasteko, Carmen V. Valiña kazetariak (2016) esaten duen moduan:

*“[...] emakumearen gorputza eta irudia askotan manipulatuak izan dira, ideologiak eta erregimen desberdinengatik, agenda politiko zehatz bati zerbitzatzeko”.*

Eta, hori gertatzen da historian zehar Ekialde Hurbilean eta Ekialde Ertainean ere. Emakumeen egoerak aldaketak jasan baititu Estatuak aldaketa hauek aurrera egin dituelako. Hau da, gobernuek lege batzuk onartu dituzte emakumeen eskubideak murrizten dituztenak eta ahots pasibo moduan agertzen eta esparru pribatuan uzten dituztenak. Hortaz, gogoratu behar da, kasuak aztertu baino lehenago, emakumearen arazo nagusia hauxe dela: haren herrialdeetan menperatzen duen sistema patriarkalak eta ez erlijioak berak. Koranean ez baitago sexu desberdintasunik. Baina, mendeetan zehar, gizonek Koranaren interpretazio okerrak egin dituzte, haien intereserako.

Historian zehar, emakume arabiar-musulmanak hainbat egoera soziopolitiko, ekonomiko eta kulturalak bizi izan ditu. 70eko eta 80ko hamarkadetan, Ekialde Hurbileko eta Ertaineko emakumeen aktibismoak aldaketa garrantzitsuak eduki zituen, sozialismoaren gainbeherarekin loturak dituena. Herrialde hauetako gobernu sozialistek pentsamolde hau zuten: emakumeen estatusen aldaketak baldin badaude, horrek antzinako mandatuak boterea galduko dutela adierazten du. Eta, aldi berean, emakumeen egoera hobetuko da Estatuak ezarriko dituzten aldaketekin. Horren adibidea izan daiteke Egipton Nasser presidentearekin, Tunisian Bourguiba presidentearekin, Iraken Saddam Hussein presidentearekin edota Afganistanen Abdul Qadir presidentearekin (Valiña, 2016).

Hori dela eta, Ekialde Hurbileko eta Ertaineko estatu sozialistek emakumeen profesionalizazioa eta hezkuntzaren aldeko apustua egin zuten, gizartean zeuden sektore tradizionalagoen boterea kenduz. Adibidez, Iraken eta Afganistanen emakumeen eskolatzeko eta lan-tasak handitu ziren, baita haien bizitza politikoa ere. (E. Tucker eta L. Meriwether, 1999: 75-77; hemen aipatuta: Valiña, 2016).

80ko hamarkadan, aldiz, sozialismoa gainbehera batean zegoen eta neoliberalismoa, oposizio islamistekin batera, areagotu zen Ekialde Ertain eta Hurbilean. Honen ondorioa emakumeen eskubideak gero eta esparru murriztago batean aplikatzen zirela eta haien aktibitate politikoak geldituko zirela izan zen. Horren arrazoia emakume hauentzat Estatuaren babesa bukatu zela izan zen (Valiña, 2016: 46-47).

90eko hamarkadan, Sobietar Batasuna desagertu ostean, Mendebaldeak etsai berriak behar zituen, orain arte mantendu diren diskurtsoak (Mendebaldea eta Besteak) mantentzeko. Horregatik, aurretik sortutako gatazkek (Lehenengo eta Bigarren Golfoko Gerrak, alegia) zein izango zen etorkizuneko diskurtso berria aurreratu zuten. Hala ere, Dorre Bikien atentatua inflexio puntua izan zen eta atentatu honek bi bloke sortu zituen: Mendebaldea eta Islama. Hori dela eta, hemendik aurrera sortuko diren diskurtsoak honela planteatuko dira: Mendebaldea eta Besteak. Hau da, musulmanak dira mendebaldekoak ez diren beste guztia: terroristak, tradizionalak, atzerakoiak, pobreak eta eskolagabeak, Mendebaldeko segurtasuna eta oreka arriskuan jartzen dutenak, alegia (Adlbi Sibai, 2016: 131-132).

### **3.1. AFGANISTANGO ETA IRAKEKO EMAKUMEEN EGOERA INBASIOAK BAINO LEHENAGO**

2001eko irailaren 11n, Al-Qaeda burututako Dorre Bikien kontrako eraso inflexio-puntu bat izan da. Momentu horretatik aurrera, aro berri bat sortu da, nazioarteko terrorismoaren kontzeptua eraiki baita eta terrorismo horren aurkako gerra prebentiboak burutu baitira. Hori dela eta, Ekialde Hurbilak eta Ertainak atentzio-fokua edukiko du, Estatu Batuek bi inbasio antolatuz.

Alde batetik, Afganistango inbasioa 2001eko urriaren 7an hasiko da. Bestetik, Irakeko inbasioa, aldiz, 2003ko martxoaren 20an izango da. Estatu Batuetako bi inbasio hauek herrialde amerikarraren hegemonia inposatzeko suposatuko du eta haren gailentasun nazionala eta internazionala erakutsiko du, indar militarren bidez (Bosemberg, 2003: 18).

Hau da, Irak eta Afganistan herrialdeen aurkako gerrek, estatubatuarren ikuspuntutik, Terrorismoaren aurkako Gerrak deritze. Hala ere, gerra hauen helburu politikoa Irak eta Afganistan herrialdeak kontrolatzeko eta hauen baliabideak ustiatzeko izango da, esku-hartze eta okupazio militarren bidez (Al-Ali, 2005: 5).

#### **3.1.1. Afganistango emakumeen egoera inbasioa baino lehenago**

Estatu Batuak Afganistango inbasioarekin hasi zenean, talibanak boterean zeuden 1996. urtetik aurrera. Lehenengo aldiz, Afganistanek gobernu erlijioso bat zuen, talibanek aprobetxatu baitzuten gobernu muyahidiak utzitako hutsunea, azken hauek porrota eduki baitzuten gobernu nazionalista bat osatzerako orduan (Nojumi, 2002: XI).

Nola ailegatu ziren egoera hartara? 1992. urtean, emakumezkoen enplegutasuna eta hezkuntza gutxi gorabehera egoera onargarriak izan ziren. Izan ere, talibanek boterera heldu baino lehenago, emakumeek esparru publikoetan lan egin zuten. Batez ere hezkuntzan, osasunean eta gobernuan. Konkretuki, gobernuko postuetan %40ak emakumeak izan ziren, ama berrien atalean lan egiten zuten doktore emakumeak ehunka izan ziren eta irakasle emakumezkoak, aldiz, %70a (Telesetsky, 1998: 297).

Baina, Mohammed Najibullah presidentearen gobernu komunista erortzen da eta talibanek boterea lortzen dute, Estatu Batuetako laguntzarekin. Momentu horretatik aurrera, emakumeen eskubideek atzerakadak jasan zituzten. Hasteko, talibanek esparru publikoengandik emakumeak kentzeko legegintza martxan jarri zuten. Modu horretan, herrialdea bi esferetan banatzen zen: publikoa eta pribatua, biak lege islamikoen menpean egonda eta emakumeak (populazioaren erdia izanez) azken esferan kokatuz.

Horrenbestez, Auzitegi Gorenak hainbat lege ahalbidetu zuen emakume hauen eskubideen kontra jotzen zituztenak. Lehenik eta behin, emakumeek debekatuta zuten lan egitea edota hezkuntza-sisteman parte hartzea, bakarrik haien etxeetan haien familien laguntzarekin ikas zezaketen. Gainera, janzteko kode bat legialatu zen eta hori dela eta, emakumeek *burka* jantzi behar zuten, makillajea eta lurrina debekatuz. Ondoren, haien askatasuna murrizta zen. Alde batetik, emakumeek debekatuta zuten hitz egitea familiakoa ez zen beste gizon batekin. Bestetik, etxetik ezin ziren atera gizon baten konpainia ez bazuten, haien mugimendu-askatasuna kontrolatuz. Bukatzeko, talibanek neskontzat bideratutako eskola guztiak itxi zituzten, haien diskriminazioa handituz eta bigarren herritar moduan hartuz (Telesetsky, 1998: 296-297).

### **3.1.2. Irakeko emakumeen egoera inbasioa baino lehenago**

Lehenik eta behin, inbasioa baino lehenago, emakume irakiarren egoera azaldu behar da. Kasu honetan, emakume irakiarren eskubideek ez dute beti aurrera egin, hau da, ez dute beti eskubide eta askatasun gehiago lortu. Horren adibide izan daiteke Saddam Hussein lehendakaritzan, haien eskubideek atzera pausuak eduki zituztela. Atzera pausu horiek Bigarren Golfoko Gerraren porrota eta gero izan ziren, Hussein zapalkuntza publikoaren ostean.

Emakumeen eskubideak agenda politiko baten arabera aldatzen dira eta Irakeko egoera politikoa horren adibide da, hain zuzen ere. Hussein lehendakaritzaren denboraldian, presidenteari emakumeen eskubideak eta feminismoa interesatzen zitzaion, haren alderdiaren helburu politikoa antzinako erregimenaren sektore erlijiosoak murriztea baitzen. Saddam Hussein Baaz izeneko alderdi politikoaren kidea zen, alderdi hau sozialista, laikoa eta nazionalista izanik.

70 eta 80ko hamarkadetan, Irakek boom ekonomiko azkarra eduki zuen, petrolioaren prezioaren hazkundeagatik eta alderdiaren politikengatik. Urte horietan, emakumeen hezkuntza maila handitu zen eta lan munduan lan egiten hasi ziren. Horrela, emakumeak etxetik kanpo lan egitea onargarria eta ospetsua bihurtu zen. Hortaz, Al-Alik (2009) azaltzen du emakumeek ikasketa eta profesionaltasun gehiago lortu zutela, erantzukizun karguak edukiz. Baina, horrek oraindik ez zuen egoera aldatu, balio patriarkalak eta kontserbadoreak existitzen baitziren. Eta, emakumeen arteko desberdintasunak zeuden, batik bat, hiri edo herriko emakumeen artean edo klase sozialen artean. Modu horretan, emakume 'baasista' burgesiaren eta modernitatearen sinbolo bat bihurtu zen, janzkera europarra edukiz.

Dena den, lehen aipatu den moduan, Bigarren Golfoko Gerraostean, Husseinek bide islamiko bat hartu zuen eta emakumeak haien paper tradizionalago batera bueltatu ziren. Martorellek (2003) azaltzen duen moduan, 2000. urtean, Husseinek eskatu zien emakume irakiarrei haien esparru naturalera bueltatu behar zirela, etxera, hain zuzen ere. Adibidez, ohorearen krimenak legeztatu ziren, gizonei immunitatea emanek. Gainera, janzkera kodeak gero eta zorrotzagoak bilakatu ziren, emakume eta neskek hijaba jantziz. Horren ondorioz, bi generoentzako espazioetan emakumeek gero eta murrizketa gehiago zituzten (Al-Ali, 2011). Horrela, haien postuak utzi ostean, emakumeen elkarteek ez zuten atzera pausurik egin eta haien eskubideak borrokatzen segitu zuten.

New Yorkeko Dorre Bikien kontrako erasoaren ostean, George W. Bush, Estatu Batuetako presidentea, estrategia politiko erasotzailea burutu zuen, haren herrialdearen segurtasuna eta interes ekonomikoaren aldeko apustua eginez. Egitasmo hau estatubatuarrek aurkari publiko bat eraiki behar zutela (kasu honetan, Al-Qaeda) oinarritzen zen, eta, modu horretan, Bush presidentearen administrazioak, beldurraren bidez, nazioarteko elkartasuna edo elkartasun nazionala bilatu nahi zuen (Sánchez Cabarcas, 2008: 162).

Estatu Batuetako administrazioak hiru justifikazio eman zituen Irakeko inbasioaren aldeko elkartasuna lortzeko. Gobernuak justifikazio hauek ez zituen aldi berean erabili, baizik eta inbasioa baino lehenago, bitartean eta gero hainbat momentuetan aplikatzen dira. Lehenik eta behin, Saddam Husseinek, Irakeko presidentea, ilegalki suntsipen masiboko armak zituen eta arma hauek berehala erabiliko zituen Estatu Batuen kontra. Are gehiago, Irak nolabait Dorre Bikien aurkako atentatuaren atzean zegoen. Beraz, Saddam Hussein-en lehendakaritzarekin bukatu behar zen, Bin Ladenekin bezala. Bukatzeko, Irak lehenengo Estatu terrorista kontsideratu zen.

Hori dela eta, terrorismoaren kontrako gerra Bagdad hiritik pasa behar zen (W. McChesney, 2006: 156). Hala ere, aurreko guztia aitzakiak izan ziren, Bush presidentearen interesak bestelakoak baitziren. Samir Aminek (2006) azaldu zuenez, 'Washington-en interesak hiru arrazoietan oinarritzen dira: petrolio, kokapen geopolitiko estrategikoa eta nazioarteko sistemaren zatia izatea' (Amin, 2006; hemen aipatuta: Valiña, 2016).



## **4. IRAKEKO ETA AFGANISTANGO EMAKUMEEN EGOERA ETA HAUEI BURUZKO DISKURTSOAK ESTATU BATUETAKO INBASIOETAN**

---

New Yorkeko Dorre Bikien atentatuaren ostean, emakume arabiar-musulmanen egoera Estatu Batuen interes publikoa bihurtuko zen eta estatubatuarren helburua Islamaren nagusitasunarekin lotzea izango da (Ahmed, 2011: 14; hemen aipatuta: Valiña, 2016). Bi gerra hauek burutzeko, herrialde honek aitzakia desberdinak erabiliko ditu eta aitzakia hauen artean emakume musulmanen askatasuna dago. Halaber, Valiña kazetariak (2016) esaten duen moduan, Mendebaldeko esparru mediatikoa bi faktoreetan oinarrituko da. Alde batetik, arrazoi erlijiosoengatik emakumeak zapalkuntza batean bizi izan direla. Bestetik, gizarte arabiar-musulmanetan emakumeek gizonengan menpekotasuna izango dutela.

Diskurtso hauek herrialde garatu, moderno, demokratiko eta feminista liberaleko testuinguru batean gauzatuko dira. Eta, 2001eko irailaren 11n izandako gertakizunetik aurrera segurtasunari buruzko diskurtso islamofoboak hedatuko dira, 'terrorismo islamikoa' segurtasunaren aurkako mehatxu moduan ulertzen baitu Bush presidentearen administrazioak. Orain, diskurtso horietan pertsona musulman baten deskribapena egiterakoan, bi ezaugarri nabarmenduko dira: fundamentalista eta integrista. Modu horretan, ezaugarri hauek zuzenean terrorismoarekin lotzen dira. Horren ondorioz, ezaugarri hauek betearazten dituen pertsonak nazioarteko lehenengo mehatxua bihurtuko da. Hortaz, kontuan hartu behar da diskurtso hauek nork esaten dituen, nola egiten dituen eta nori eragiten dizkion (Adlbi Sibai, 2016: 114). Izan ere, emakume musulmanek islamofobia gehiago pairatzen dute gizon musulmanek baino. Diskurtso hauek sistema patriarkalak eta sexistak bultzatzen baitituzte (Hamdan, 2007; Ramírez eta Mijares, 2008; Zine, 2006; hemen aipatuta: Adbli Sibai, 2016).

Bestalde, Mendebaldeko gizartearen iritzi publikoa desberdina izan da inbasio bakoitzetan. Alde batetik, Afganistango gerran Mendebaldeko biztanleriak inbasioa onartuko du, talibango erregimenak politika erlijioso zorrotzak bultzatzen zituelako, Budako estatuak dinamitatu zituelako eta Osama Bin Ladeneko talde terrorista herrialde horretan aritzen zelako. Hori dela eta, Dorre Bikien atentatua baino lehenago Mendebaldeko gizarteak haren iritzi publikoa definituta zuen.

Dena den, Irakeko gerran ez zegoen justifikazio politiko edo juridikorik esku-hartze militarra aurrera eramateko. Horren ondorioz, desinformazioaren kanpain klasikoa burutu zuten, zerbitzu sekretuak propaganda eta gezurren kanpainako bultzatzaileak izan baitziren (Pizarroso Quintero, 2009).

Are gehiago, XXI. mendeko lehenengo urteetan, Mendebaldeko herrialdeek emakume musulmanen askatasunaren alde borrokatuko zutela zabaldu zuten, batik bat, horrelako aitzakia jarri baitzuen George W. Bushen Afganistan eta Irak herrialdeak inbaditzeko. Izan ere, administrazio estatubatuarraren aitzakia izan zen Mendebaldeko irakiar eta afganiar emakume gizajoak salbatu behar zituela, Islama bezalako erlijio batengatik askatuz (V. Valiña, 2016:14-15). Beraz, esku-hartze militarrek justifikatzeko diskurtsoak hiru gaietan oinarrituta eratuko dira. Hasteko, Islama dela eta, Mendebaldeko zapalduak dauden emakumeen askatasuna lortuko du. Ondoren, Mendebaldeko herrialdeek demokrazia, segurtasuna eta egonkortasuna eramango dute. Eta, azkenik, diskurtso horien guztien oinarria buruko zapia izango da.

Alsultanyk (2012) esaten duen moduan, errepresentazio hauek estereotipoak osatzen dituzte eta horren ondorioz, politika arrazistak sortzen dira. Izan ere, medioetako musulmanen errepresentazio negatiboa agenda politiko baten zatia da, elite politiko baten interesetara bideratuta (Breskà, 2009: 21). Izan ere, populazio batentzat medioak dira 'besteen' irudia adierazteko duten informazio iturri bakarra. Modu horretan, diskurtso hauen bidez, Ekialde Hurbileko eta Ertaineko erlijioa, kultura, zibilizazioak, herrialdeak eta Islama bera sinplifikatzen dira. Hitzaldi hauek Islama bloke nagusi edo hegemoniko batean sartzen baitute. Eta, Islama sistema patriarkalaren eta balore antidemokratikoen sinonimoa bihurtuko da.

Gainera, buruko zapia edo hijaba emakume musulmanen zapalkuntzaren sinbolo unibertsala izango da, menpekotasun hau gizon musulman fundamentalista eta fanatiko baten eskutik izanez. Horren ondorioz, deskribatutako irudi honen bidez kultur, hezkuntza, klase sozial, arraza eta etnia desberdineko 1,600 milioi musulmanen errealitatea sinplifikatzen eta irudikatzen da, Islama hijabaren edo zapiaren bidez irudikatuz (Adlbi Sibai, 2016: 134-135).

Orobat, Ekialde Hurbila eta Ertaina osatzen duten estatuen arteko desberdintasunak ez du Mendebaldeko ezberdintzen. Beraz, Estatu bakoitzean emakume hauek duten hezkuntza-maila, eskubideak eta lan esparru ez da kontuan hartzen. Modu horretan, arabiar edo musulmanei buruzko edozein diskurtsoetan errealitate arabiar-musulmanak isilduak, gutxituak, kontrolatuak eta manipulatuak izango dira, Mendebaldeko 'emakume musulmana' definitzen duena horren guztiaren ondorioa bihurtuz. Hau da, 'emakume musulmana' 'Bestearen' eredu izango da, Ekialde Hurbilak eta Ertainak ere dituen egoera eta testuinguru guztiak eredu horretan gutxituz. Hori dela eta, islamofobiak generoan garrantzia handia duen jazoera bat da (Adlbi Sibai, 2016: 128-129).

Dena den, gerra garaietan generoak paper tradizional bat betetzen du: gizonez betetako armada batek beste herrialde bateko emakumeak salbatuko ditu. Hau da, Estatu Batuetako armadak gizarte berdintsu batetik datorrela pentsatzen du eta ideia horrekin Irak eta Afganistango herrialdeetara joaten da. Baina, hau paradoxa bat izan daiteke, armada baita genero desberdinkeria duen erakunde nagusi bat (Bergström eta Ekseluis, 2012). Hortaz, hemen argi eta garbi ikus daiteke Spivakek esandako esaldi famatua: *“White men are saving brown women from brown men”* [gizon zuriak emakume beltzaranak salbatzen dituzte gizon beltzaranetatik] (Spivak, 1988; hemen aipatuta: Ali, 2012).

#### **4.1. EMAKUME AFGANIARREI BURUZKO DISKURTSOAK AFGANISTANGO INBASIOAN (2001)**

Dorre Bikien kontrako atentatuaren ostean, Estatu Batuetako eta Europako diskurtso publiko eta politikoetan emakume musulman eta Islamaren gaiak zabaldu ziren. Izan ere, Rostami Povey idazleak (2003) azaltzen duen moduan, Mendebaldeak, gerra garaietan, emakume arabiar-musulmana biktima, biolentzia eta zapalkuntza politikoaren gizaki pasibo moduan aurkezten du eta honen askatasuna bakarrik esku-hartze militarren bidez adierazten du.

Mendebaldeak Afganistango gerra justifikatzeko, emakumeen askatasuna eta burkaren kentze horretatik ez ezik, beste diskurtso batzuk ere hedatu zituen. Adibidez, estatubatuarrek eta europarrek afganiarrak terrorismoarekin lotu zituzten, Osama Bin Laden harrapatzeko eta gobernu afganiarrak boteretik kanporatzeko. Baina, diskurtso horien atzean helburu politikoak zeuden: onura eta motibo neokolonial ekonomikoak eta politikoak, alegia. Eta, ahalik eta zonalde gehiago bereganatzea nahi zuten, petrolio kontrolatzeko asmoarekin lotuta. Dena den, administrazio estatubatuarrek saihestu zuten helburu politiko hauek aipatzea (Bowles eta Ayub, 2004: 17).

Beraz, 2001eko azaroaren 17an Laura Bushek, Estatu Batuetako lehenengo damak, irrati elkarrizketa batean Afganistango emakumeek pairatzen zituzten zapalketari buruz hitz egin zuen, Estatu Batuen arazo nazional moduan aurkeztuz (Ahmed, 2011). Laura Bush-en hitzalditik zati hau nabarmentzen da:

*"[...] munduan zehar, jende zibilizatuaren bihotzak apurtuta daude Afganistango emakume eta umeak direla eta. Afganistanen ikusten dugu terroristek zer inposatu nahi dieten gainontzekoei. Terrorismoaren aurkako borroka emakumeen duintasunaren eta eskubideen aldeko borroka da ere."*

Bi egun geroago, Cherie Blairrek, Tony Blair lehen ministro britainiarraren emazteak, antzeko diskurtso bat eman zuen. Afganistan herrialdearen aurkako gerra emakumea salbatzeko modu bat bezala aurkeztu zuen. Gainera, Blairrek burka emakumeentzat oztopo bat zela aurkeztu zuen. Modu horretan, burka gerra honetako gai nagusia bilakatu zen, Mendebalde eta Islamaren arteko konfrontazioa izanik (Aspden, 2011). Hau da, burka estatubatuarrentzat janzkera-sinboloa bilakatu zen Afganistango gerran parte hartzeko. Modu horretan, Estatu Batuen inbasioa eta gero, emakume afganiarrek diskriminazio bikoitza jasan zuten. Alde batetik, gizon afganiarren partetik, gizonen diskriminazio lokala eta tradizionala izanik. Bestetik, diskriminazio kanpotarra, Estatubatuko tropen eskutik, hain zuzen ere.

#### **4.1.1. Burka Afganistango gerraren sinboloa**

Horrez gain, munduan zehar, emakumeak burkaz jantzitako irudia zabaldu zen. Leila Ahmed-ek (2011) azaltzen duen moduan, kazetari britainiar batek burka definitu zuen gudaren bandera moduan eta justifikazio morala bezala. Irudi hau Mendebaldean hedatzeak emakume hauei eragiten zieten beste faktoreak ez agertzea suposatu zuen, hala nola, genero desberdinkeriak, behartutako ezkontzak, mugimendu askatasunik eza, biolentzia soziala, etab.

Modu horretan, Mendebaldeak emakume hauen askatasuna burka kentzeko keinuarekin lotu zuen, hedabideen bidez, irudi hura zabaldu baitzen. Hala nola, *Newsweek* izeneko aldizkariak 2001eko azaroaren 26an 'Liberation' izeneko artikulua argitaratu zuen. Argazki batean emakume afganiar bat agertzen zen, haren burka kentzen ari zen bitartean. Argazki hau Estatu Batuen esku-hartze militarra baino sei aste geroago argitaratu zen (Bowles eta Ayub, 2004:13).

Gainerako artikuluek burkaren kentze kontuarekin jarraitu zuten eta hainbat emakumeen istorioak azaltzen ziren, hala nola, emakume afganiar konkritu baten istorioa, honek haren burka erre baitzuen (Bowles eta Ayub, 2004:13). Bestalde, Estatu Batuak Afganistango gerran parte hartu zuenean, emakume hauen janzkerak atentzio asko jaso zuen nahiz eta burka berria ez izan herrialdean. Baina, lehenago aipatu den moduan, emakumeen eskubideak politizatuak izan dira Afganistanen ere. Eta, gerra garaian are gehiago: kanpora mezuak bidaltzeko asmoarekin erabiliak dira, eta horrela, baliabide politiko nazionalak eta nazioartekoak bihurtzen dira (Sedghi, 2007; hemen aipatuta: V. Valiña, 2016).

Dena den, Estatu Batuak emakumeen irudi hau sinplista izatea lortu du, nahiz eta burka hainbat esanahi eduki. Abu-Lughodek (2002) azaltzen duen moduan, talibanek ez dute burka asmatu. Izan ere, zonalde bateko Pashtun emakumeek janzten dute kalera irtetzerako orduan. Pashtun Afganistaneko talde etniko bat da, Afganistan, Pakistan, Iran eta India herrialdeetan banatuta dagoena.

Beraz, Asiako hego-mendebaldean janzkera hura, beste batzuen artean, herritarrek batez ere apaltasuna eta errespetua sinbolizatzeko erabiltzen dute. Gainera, burka, beste janzkera batzuekin gertatzen den moduan, emakume eta gizonen arteko esferak desberdintzeko elementu bat da, emakumeen esfera hau esparru pribatua izanik. Konkretuki, Afganistango kasuan, talibanek herrialde honen zonalde bateko janzkera herrialde osoan inposatu dute, janzkera hau erlijioarekin lotuz eta ez kulturarekin. Izan ere, herrialdean zehar, janzteko estilo desberdinak egon dira, tradizionalak edo popularrak izanez, edo klase sozialak eta taldeak ere desberdinduz (Abu-Lughod, 2002).

#### **4.1.2. Feminismo hegemonikoa Afganistango inbasioan**

Horrez gain, Afganistango inbasioan, *purplewashing* kontzeptua asko erabili zen. Bowlesek eta Ayubek (2004) aztertu duten moduan, 2001. urteko azaroan, inbasioak zibilak hiltzen zituen bitartean, talde feminista batzuk, horien artean, Feminist Majority Foundation, The National Council of Women's Organizations (hainbat erakunde feministen ordezkaria izanez) eta National Organization of Women (NOW) Bush administrazioarekin elkartu ziren. Bilera hauen gai nagusia erakunde hauek administrazioaren erabakiak bermatuko zituztela izan zen. Paradoxa bat izan zen. Izan ere, feminista hauen ustetan, Bushen gobernuak edozein gauza eginez gero, emakume afganiarren aurrerapena suposatuko zuen, jakinda gerra batean emakume zibil gehiago hiltzen zirela gizon zibilak baino.

Feminist Majority Foundation erakunde estatubatuarra haratago joan zen eta haren kausa justifikatzeko kanpain bat egin zuen. Kanpaina honek 'Stop Gender Apartheid in Afghanistan' izena zuen. Eta, Hollywoodeko aktoreek eta hainbat aldizkari batzuek (Glamour, Jane, Teen, etab.) kausa hura defendatu zuten. Kanpaina hau Bush presidentek botere lortu baino lehenago hasi zen, 90ko hamarkadan, Bill Clintonen lehendakaritzan, alegia. Hala ere, kanpainak oinarri bera zuen: emakumeen askatasuna lortzea. Talibanek emakumeen eskubideetan murrizketak aplikatu baitzituzten. Beraz, oso erraza izan zen kanpaina honen bidez errepublikanoak, demokratak, aktibistak eta Hollywoodeko aktoreak elkartzea. Modu horretan, Estatu Batuetan kanpaina zabaldu zen emakumei zuzendutako aldizkarietara (Glamour, Jane, Teen. etab.) eta aldizkari feministetara (Sojourner, Off our Backs eta Ms.). Aldizkari hauetako albisteen gai nagusia, talibanen menpean, emakume afganiarren bizitza nolakoa zen azaltzea izan zen.

Dena den, argi eta garbi dago Feminist Majority erakunde honek Etxe Zuriko administrazioarekin harreman zuzena zuela. Izan ere, Feminist Majorityk, emakume musulman hauen askatasunaz haratago, ezkutuko helburuak zituen. Izan ere, gerra hasita, haren webgune ofizialean bakarrik talibanen arauak kaltegarriak zirela argitaratzen zuen, talibanen irudia demonizatzeko.

Baina, inoiz ez zuen informatu hiru urteetan zehar 2,2 milioiko biktimak egon zirela, Estatu Batuen bonbek ez zituztelako janaria lortzeko aukerak ahalbidetu. Eta, nahiz eta beste erakunde batzuk, horien artean, Afghan Women's Missions erakundeak, Feminist Majorityri su-etenak bideratzeko abisu batzuk eman, erakundeak ez zuen seinalerik eman, erakunde honentzat jada emakumeak biktimak zirela ez zuen hainbesteko garrantzirik (Hirschkind eta Mahmood, 2002: 340-341).

#### **4.1.3. Hedabideen eragina Afganistango inbasioan**

Beraz, Estatu Batuetako erakunde feministak ez ezik, hedabide batzuetako hainbat kazetari emakumeek ere Bushen administrazioa defendatu zuten. Hala nola, *The New York Times*, *USA Today*, *Time* edota *Newsweek* aldizkarietan lan egindako kazetariak. Horien artean, *Washington Times* egunkari kontserbadorean lan egin zuen Suzanne Fields kazetaria aurki daiteke. Izan ere, Fieldsek (2002) goratu zuen Bushen administrazioak lortu zuena: Mendebaldeko feminismo adarrak bateratu izana emakume afganiarrak askatzeko. Gainera, kazetari honek baieztatu zuen benetako askatasuna etorriko zela Afganistanen edertze-denda bat irekitzerakoan.

Gainera, zifrak kontuan hartuta, 1999. urtetik baino lehenago, Afganistango emakumeei buruzko 29 artikulua eta 37 programa aurki daitezke Estatu Batuetako egunkarietan; 2000eko urtarrilaren 1etik 2001eko irailaren 11ra arte, 15 artikulua eta 33 programa daude. Baina, Dorre Bikien atentatuaren ostean, 93 prentsa artikulua eta 628 programa idatziko dira. Hau da, 1999. urtea baino lehenagoko artikuluekin konparatuz gero, hiru aldiz gehiago idatziko da. Eta, atentatuak gertatu eta 18 hilabete baino lehenago, berriz, sei aldiz gehiago agertuko da. Artikulu hauen gai nagusia, politikoen diskurtsoekin bat eginez, emakumeen askatasuna izango da. Eta, askatasun hori deskribatzeko, artikulua hauek hauxe deskribatzen zuten: emakume afganiarrek burka kentzen zutela askatasuna bilatzeko (Stabile eta Kumar, 2005).

Baina, ez da beharrezkoa hain urrun joatea. Izan ere, 2010. urtean, emakume afganiarrak oraindik politikoki erabiliak izan dira. Urte horretan, *Times* aldizkari estatubatuarreko azalean sudur gabeko emakume afganiar bat agertzen zen, buruko zapi batekin pixka bat ezkutatuta, eta, honelako titularrarekin aurkeztu zen: "Hau gertatuko da Afganistan uzten badugu". Artikulu honen bidez, Richard Stengelek, erredaktore buruak, emakumeen aurkako biolentzia eta Estatu Batuko tropen irteera lotu nahi zuen, herrialde honetako tropen irteera kritikatzuz (Zurbano eta Martínez, 2012).

Carmen V. Valiña kazetariak (2016) azaltzen duen moduan, hedabide hauek emakume afganiarrak deskribatzerako orduan, buruko zapia eta konkretuki, burka, gataska honen sinboloa bilakatu dute. Eta, sinbolo honen bidez, Mendebaldeko hedabideek eta gizarteak emakume hauek adierazten dituzte. Sinbolo hau zapalkuntzaren erakusgarri moduan sortzen da. Hori dela eta, kaletik ateratako irudi edota argazki batzuetan jantzi hau etengabe agertzen da; etxea baita burka kendu ahal duten espazio bakarra (nahiz eta kasu batzuetan buruko zapia jantzi). Baina, Mendebaldeko gizartearen aurrean, burkaren esanahia talibanen erregimenaren mehatxua izango da. Beraz, ikuskera hura sinplista da, talibanen erregimena baino lehenago, landako zonaldetako emakumeentzat, jantzi arranditsua baitzen, status sozial bat ematen baitzion jantzen zuenari.

Hala ere, emakume bat janzkera horrekin inpaktua sortu duen irudia da. Eta, komunikabideak irudi horrekin geratu dira. Hau da, kazetariak ez dute inolako kronikarik egin emakume afganiarrek eduki ahal duten beste arazoei buruz. Gainera, harrigarria da 1996. urtean gutxi gorabehera burkaren derrigorrezko ezarketa izatea eta Estatu Batuen inbasiotara arte ez hitz egitea Mendebaldean. Izan ere, egoera konplexu bati buruzko denbora inbertitu beharrean eta burkak komunikabideetan atentzioa duenez, bigarren aukerarekin gelditzen dira. Hortaz, emakume afganiarrak horrela aurkeztuz gero, hedabideek subjektu politiko eta aktiboaren papera kentzen dute, haien borroka ikusezina bihurtuz. Beraz, diskurtso hauek biktimistak izango dira, Mendebaldeko paternalismoa indartuz eta emakume hauen irudia Mendebaldearen aurrean homogeneoa (biktima paperean) izanez (Zurbano eta Martínez, 2012).

Horregatik, Mendebaldeko estrategia argia da: burkaren erretorika erabiliko da herrialde honen inbasioa justifikatzeko, emakume hauen askatasunaren aitzakiarekin. Orduan, honekin emakumeen eskubideak politizatuak izan direla ikusten da. Hau da, batez ere gerretan emakumeak kanpora mezuak bidaltzeko erabiliak izan dira. Horrela, nazioarteko politika eta politika nazionalaren erremintak bilakatzen dira, askatasunaren erretorika honen adibide argiena izanez.

#### 4.1.4. Nazio Batuko 1325 ebazpenaren ezarpena Afganistango inbasioan

Inbasioa hasi eta bi urte geroago, estruktura soziala, emakumeen egoera eta bizitzamaila berdina izan zen talibanak boterean zeudenean eta estatubatuarren inbasio ostean. Estatu Batuen inbasioak pobrezia, amen heriotza-tasa altua, osasun-arazoak eta segurtasun falta ekarri baitu, bi aldeetatik. Izan ere, militar estatubatuarrek eraso sexualak eta bortxaketak ere egin ditu emakume afganiarren kontra (Bowles eta Ayub, 2004: 117-18).

*Telesur* (2017) aldizkariaren arabera, 2009. eta 2014. urteren artean, gerra honek 17.252 zibil hil ditu eta 29.500 zauritu baino gehiago sortu ditu Nazio Batuak zabaldu dituen datuetan oinarrituta. *El País* egunkariak (2017) azaltzen duen moduan, 2017. urtean 2.300 zibil hil edo zaurituak izan dira, eta honek suposatzen du gatazka iraun duen urteetan zehar, zifrarik altuena izan dela. Informazio hau UNAMAK eman du (Nazio Batuetako Misioa aurrera eramaten duen erakundeak). Txosten hau argitaratu du talibanak eta Daesh taldeak haren erasoak handitu dituzte eta Donald Trumpek iragarri duenez tropa estatubatuarrek herrialde honetan segituko direla. Izan ere, Washingtoneko administrazioak aireko erasoak handituko dituela abisatu du.

Gainera, UNAMAK argitaratutako txosten horretan honelako informazioa agertzen da: 17 urte geroago, gerrak 10.000 hildako eta zauritu zibilak sorrarazi ditu eta emakumeei dagokienez, 1.224 biktima eragin ditu, horietatik 359 hildako eta 865 zauritu izanik. 2016. urtearekin konparatuta, emakumeen hilketak %5eko gorakada suposatu du. Gobernuaren kontrako indarrek 629 biktima eragin zituzte eta gobernuaren aldeko indarrek, aldiz, 390. Baina, bien arteko borroka sortu direnean, 184 emakume biktimak izan dira, lurrezko borrokaldiak %51ren biktimak eraginda (UNAMA, 2018).

Hortaz, honen aurrean, 2015. urtean, Afganistango gobernuak 1325 ebazpenean oinarritutako lehenengo plana burutu du. Planaren izena hau da: 'The Afghanistan's National Action Plan (NAP)'. Horren helburua da Afganistango gatazkan eta gerraostean emakumeen egoera hobetzea, 'emakume', 'bake' eta 'segurtasun' parametroetan oinarrituta. Eta, epe bat du: 2015. urtetik 2022. urteraino.

Hori dela eta, herrialde honen gobernuak emakumeen bake prozesuetako eta segurtasuneko parte hartzearen hazkundera lortzea da. Eta, aldi berean, emakumeen babespena eta emakumei zuzendutako zerbitzuak berreskuratzea. Hala nola, hauteskunde probintzial eta nazionaletan emakumeak aktiboak izatea, biolentzia eta diskriminazioaren aurkako babespena, emakumeentzako lan aukerak handitzea, etab. Izan ere, dokumentu honek azaltzen du gerra dela eta, emakumeak baztertzeko egoera batean daudela, zerbitzu, hezkuntza eta lan aukera gutxiago edukiz. Hortaz, emakume langabe gehiago daude gizon langabe baino.



Bestalde, Afganistango gobernuaren arabera, bake prozesua aurrera eramaten duen erakundean, High Peace Council (HPC) izenekoak, 70 kideetatik bederatzik emakumeak dira. Eta, 33 probintzietan zehar, 71 emakume aktiboak dira Provincial Peace Committees and Secretariats izeneko erakundeetan (Afganistango Kanpo Arazoen Ministerioa, 2015).

Dena den, nahiz eta Konstituzioaren 22. artikuluan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko legea eduki, Estatu Batuen esku-hartzea eta gero, emakumeek ez dute segurtasunik Justiziaren aurrean, lege tribalekin edota tradizioan oinarritutako legeekin epaitzen dituztelako, eta, askotan, biktima izatetik eragilerak bihurtzen dira. Gainera, Segurtasun Kontseiluak ISAF misioari<sup>8</sup> buruz ateratako zazpi ebazpenetatik, ez dago inolako erreferentziarik 1325 ebazpenari buruz. Hau da, nahiz eta zibilen (eta beraz, emakumeen) babesa misioaren xede nagusia izan, ez du genero perspektibari buruzko aipamenik egiten. Honek esparru publikoko emakumeen partaidetza ondukoak ditu.

2007. urtean, erakunde publikoetako emakumeen errepresentazioa baxua izan zen. Batez ere gatazka konpontzen aritzen diren erakundeetan, alegia. Urte berean, 38.000 emakume lan egin zuten gobernu nazionalan. Honek herritar zibilen %25a dela adierazten du (Mondiale, 2007). 2013. urtean, UNAMAK argitaratu zuen artikuluan bakarrik emakumeen %9ek boterezko postuak zituzten. Gaur egun, Afganistango 26 ministerioetatik bost ministerio emakumeek kontrolatzen dituzte: Minen eta Petrolioaren Ministerioa, Narkotikoen Kontrako Borrokaren Ministerioa, Goiko Heziketaren Ministerioa, Lan, Zeregin Sozialen, Martirien eta Elbarrituen Ministerioa eta Emakume Gaien Ministerioa (Espainiako Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa, 2017). Bestalde, Munduko Bankuaren (2018) arabera, 2017. urtean, Afganistango Legebiltzarrean emakumeen presentzia %27,7koa da.

---

<sup>8</sup> Nazio Batuko Segurtasun Kontseiluak 2001eko abenduaren 20an *International Security Assistance Force* (ISAF) misioa onartu zuen. Misio honek NATOK zuzentzen zuen, Afganistango segurtasuna mantentzeko helburuarekin.

## **4.2. EMAKUME IRAKIARREI BURUZKO DISKURTSOAK IRAKEKO INBASIOAN (2003)**

2004. urteko Emakume Nazioarteko Egunean, Irakeko inbasioaren urte baten ostean, Bush presidentek hitzaldi bat eman zuen 250 emakumeen aurrean. Al-Alik eta Prattek (2009) aipatzen dutenez, hitzaldi horretan Estatu Batuetako presidentek emakumeen eskubideen aurreratzeak eta askatasunaren aurrerapenak bereizezinak zirela aipatu zuen. Diskurtso horrekin Bush jaunak (Estatu Batuetako inbasioarekin batera) lortu nahi zuena izan zen inbasioa itxaropen moduan ikustea. Hau da, presidente estatubatuarrak Irak bezalako herrialde batera emakumeen askatasuna ekarriko zuen, demokrazia eta askatasunarekin batera (Efrati, 2012: 1).

Gainera, 2004eko irailaren 1ean, Laura Bushek diskurtso bat eman zuen New Yorkeko Alderdi Errepublikanoaren Kongresurako. Hauteskundeak laster ospatuko ziren eta haren senarra lau urte gehiago boterean geratzeko botoak eskatzen zituen. Diskurtso honetan *storytelling* bat egin zuen, emakume irakiar baten istorioa azalduz. Hauxe izan zen haren diskurtsoaren zati bat:

*“Duela gutxi emakume irakiar gazte batekin elkartu nintzen. Fulbright<sup>9</sup> ikasle irakiar berria da. Berak esperientzia gogorak bizi izan ditu, Saddam Husseinek haren herria gaseztatu zuela kontuan hartuta”.*

### **4.2.1. Feminismo hegemonikoa Irakeko inbasioan**

Irakeko inbasioan (eta Afganistango inbasioan ere) feminismoaren erretorika erabili zen. Katharine Viner kazetariak (2002) azaltzen du Bush presidentek Irak eta Afganistango inbasioak justifikatzeko feminismoaren erretorika erabili zuela, nahiz eta Estatu Batuetan presidentea feminista ez izan. Adibidez, Bushen administrazioak abortua jarduten zuen edozein erakundeekiko harremana moztu zuen, hitzaldi batean abortatzea terrorismoarekin konparatuz.

Horrez gain, gobernu estatubatuarrak funts batzuk ireki zituen, emakume irakiarren egoera hobetzeko. Funts hauei “Women’s empowerment” izendatu zien. Al-Alik (2009) George Bushek emandako diskurtso baten zatia aipatzen du: “Dudarik gabe, demokrazia berrietan emakumeei boterea ematerakoan herrialde demokratiko hobeak izango direla lortuko da, etorriko diren belaunaldientzako bakea hedatzeari lagunduz”.

---

<sup>9</sup> Fulbright programa hezkuntzarako laguntza akademikoa da, Estatu Batuetako Estatu Saileko Hezkuntza eta Kultur Bulegoak ematen duena. Programa honek hainbat herrialdeen artean ikasleen trukaketa garatzea adierazten du eta programarik ezagunena bilakatu da.

Beraz, emakume (musulmanak) ikasi, analizatu, hauteman eta eraiki dituzte Mendebaldeko feminismo hegemoniko baten patroia eta irizpide batetik (Spivak, 1999; hemen aipatuta: Adlbi Sibai, 2016). Bestalde, Afganistango inbasioarekin gertatzen den moduan, feminista "inperialista" batzuk (batez ere estatubatuarrak) emakume irakiarren askatasuna lortzeko, esku-hartze militarra eskatzen dute. Gainera, eskubideen aldeko aktibista irakiar batzuk ere inbasioa justifikatzen dute, azken hauek Estatu Batuetako onarpen sozial bat eduki ahal izateko. Al-Alik (2011) baieztatzen du emakume hauek benetan sinesten dutela parte hartze militarra dela Saddam Hussein boteretik kentzeko bide bakarra. Beste batzuk, aldiz, aukera paregabea ikusi dute etorkizunean gerraosteko posizio edota baliabideak lortzeko. Hori dela eta, *bandwagon*<sup>10</sup> fenomenoak sortu dute.

Horrez gain, feminista irakiar batzuk ere inbasioa ez dute argi eta garbi kritikatu, ezta demokrazia, askatasuna eta segurtasuna ekarriko zutenaren porrota ere. Bestalde, beste batzuk kritika horiek ezkutatu dute. Izan ere, Estatu Batuek edo Britainia Handiak emakumeei zuzendutako proiektu desberdinak finantzatu dituzte. Eta, kritikak eginez gero, diru iturriak kentzeko posibilitateak daude estatubatuarren eta britainiarren eskutik. Gainera, estatubatuarren eta britainiarren okupazioaren artean eta indar kontserbadore eta extremisten artean, lehenengoa nahiago dute (Al-Ali, 2011).

#### **4.2.2. Hedabideen eragina Irakeko inbasioan**

Inbasio honetan hedabideek paper handia eduki dute: 500 kazetari anglosaxoiar joan dira eta horrez gain, mundutik etorritako beste 500 kazetari baino gehiagok Iraketik informatu dute inbasioa. Hedabideek iritzi publikoa maneiatu dute, kazetariak Bush eta Saddam Hussein presidenteen estrategia belikoaren menpean egon baitira.

Dena den, gerra osoan zehar, emakume irakiarrek ez dute paper garrantzirik izan. Konkretuki, Espainiako telebista publikoan (TVE) ez dago kronika bat ere ez emakume irakiarra protagonista denik. Hori dela eta, agertzen diren protagonista bakarrak gizonak dira eta hauek inbasioaren biktima bakarrak direla ematen du.

---

<sup>10</sup> Bandwagon ingelesez psikologia sozialeko tendentzia bat da, non pertsona batzuk sinismen edota jokaera batzuk dituzte bakarrik beste gizarte talde batek ideia berak egiten edo sinisten dituelako. Hau da, zenbat eta pertsona gehiago sinismen edo jokaera berberak eduki, orduan eta posibilitate gehiago daude jende gehiagok ideia horiek edukitzeko.

Hortaz, emakume hauek komunikabideen diskriminazio edo bereizketa ere pairatzen dutela esan daiteke. Horren arrazoia izan daiteke iturri lokalak eskasak direla Mendebaldeko hedabideetan. Eta, horren ondorioz, hedabide hauek gizarte irakiarra masa anonimo bezala aurkezten dute, esperantzarik gabeko herrialdea bezala deskribatuz, honek pairatzen dituen kaos, zauritu eta lapurretekin (Valiña, 2016).

Rubio Garridok (2008) 2003. urteko martxotik maiatzaren arteko emakume arabiar-musulmanen papera Espainiako prentsan aztertu du. Haren ondorioak hauxe dira: gehien errepikatzen diren eszenak emakume irakiarrek negarrez izan dira, haien senideen hilketak direla eta. Bi alditan, lehenengo orrialdeetan, emakume hauek penan eta desesperazioan suminduta agertzen dira, *ABC* eta *El Mundo* egunkarietan 2003ko martxoaren 30ean, hain zuzen ere.

Horrez gain, beste eszena batzuetan kazetari espainiarrek emakumeei irteten uzten ez dieten kontrol militarrei idazten dute. Bestalde, haien seme-alabekin egindako ihesa erretratatzeko dute. Gutxiengo artikulua batzuk, argazkien bidez, emakume irakiarrek aurkezten dute borrokalaria aktibo moduan eta gerra horren aurka, armak hartzen dituztenak. Dena den, emakume guztiek *chador* izeneko arropa janzten dute. Arropa hau populazio xiitak erabiltzen baitu, Irakeko populazio gehiengoa izanik.

Estatu Batuetan, aldiz, McChesneyk (2006) azaltzen du *Columbia Journalism Review*ek Estatu Batuetako sei egunkari nagusi aztertu dituela (*The New York Times*, *The Washington Post*, *The Wall Street Journal* eta *USA Today*) eta haien editorial atalak analizatu eta gero, ondorio hau ateratu du: egunkari hauek ez dute Bushen administrazioaren aitzakiak zalantzan jarri. Beraz, Estatu Batuetako gobernuak emakume irakiarrei buruzko deskribapen eta hauen egoera guztiei buruzko informazioa egunkari hauek besterik gabe artikulua moduan argitaratzen dute, bestelako iturririk hartu gabe.

Bestalde, Keithek eta Schwalbek (2010) azaldu dutenez, "480 argazkietan, emakumeak bakarrik hamaika aldiz baino gutxiagotan agertzen dira". Zenbaketa hemezortzi eguneroko egunkari, hiru aldizkari eta hauen webguneetatik ateratako argazkien bidez egin da. Telebistan, *ABC* 98 alditan borrokaldien istorioak transmititzen dituen bitartean, bakarrik 72 alditan populazio zibilaren istorioak kontatzen ditu. *FOX*ren kasuan, 63 alditan borrokak transmititzen ditu eta 50 alditan, aldiz, herritar zibilen istorioak. Datu hauek gerra hasi eta lehenengo hilabetetan izan zen, 2003ko uztaila eta abuztuko hilabeteen artean (Lichter eta Lichter, 2003).

Beraz, iturri ofizialetik informazioa bakarrik hartzeak ahots lokalen ezabapenean ondorioak ditu. Eta, batez ere, emakume irakiarren ahotsak ez du oihartzunik Mendebaldean, emakume hauek ez baitute aukerarik haien istorioa kontatzeko.

Gainera, kuriositate moduan, Espainia, haren armadari esker, laguntzaile moduan agertzen da komunikabideetan, baina, ez dago inolako aipamenik Espainia Estatu Batuarren koalizioan parte hartu zuenik (V. Valiña, 2016: 137).

#### **4.2.3. Nazio Batuko 1325 ebazpenaren ezarpena Irakeko inbasioan**

Inbasioan eta gerraostean, emakumeak benetako galtzaileak dira. Izan ere, Abdulatif idazleak eta giza eskubideen defendatzaileak (2015) aipatzen duen moduan, atzeragite sistematikoak gertatu dira 2003. urtetik aurrera. Irak banatuta baitago botere lokal, erradikal eta sektarioen artean, eskualdeko botere eta botere nazionala esku hartuz eta emakumeen eskubideen kontra antolatuz.

Al-Alik (2005) baieztatzen duenez, Husseinen boterea amaitu zenean, emakume asko aktiboak izan ziren, parte hartzeko eskubidea eskatuz. Horrela, adostasun batera iritzi ziren: hauteskundeetan %25-30ak emakumeak izan behar ziren, posizio politiko desberdinak edukiz. Hau da, legez Irakeko Legebiltzarrean emakume kuota bat bete behar da, beti emakumeen errepresentazioa Gorteetan egoteko.

Hala ere, Bushen administrazioak kuota hau mantentzeko ez zuen politika arauak bultzatu. Izan ere, estatu batuarrek egoera berrerrazteko nahiarekin, Gorte Tribalei deitu eta hauei botere judiziala eman zieten, emakumeen eskubideei kalte eginez (Efrati, 2012). Gainera, portzentai honek ez du esan nahi erabakiak hartzeko momentuan haien botoak inpaktuak edukiko dituztenik. Hots, ez du ahalbidetzen emakumeen paper garrantzi gehiago eduki dezakeenik.

Beraz, nahiz eta 2003. urtean emakumeak parlamentuaren aulkietan %30aren ordezkariak lortu, 2006. urtean, aldiz, %19a izan zen. Eta, 2017. urtean, berriz, %25,3koa izan da (Munduko Bankua, 2018). Bestalde, Estatu Batuak osatutako Irakeko gobernu kontseiluan bakarrik hiru emakume zeuden 25 ordezkarietatik (Efrati, 2012). Eta, emakume bakar bat aukeratua izan zen behin-behineko gobernuaren ministro izateko. Azken hauteskundeetan, 2018. urtean, alegia, hogeita bi Ministerioetatik, emakumeak bi ministerioetan bakarrik agintzen dute: Osasun Ministerioan eta Etxebizitzaren Ministerioan (Espainiako Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa, 2018).

